

Leon Tolstoi

Ivan Ilitxen heriotza

euskaratzailea: Xabier Mendiguren

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Xabier Mendiguren.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1991

Jatorrizkoaren data: 1886

Leon Tolstoi euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=312>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1166>

LEV NIKOLAIEVITX TOLSTOI

Lev edo Leon Nikolaievitx Tolstoi Kondea, 1828an jaio zen Jasnaia Poliana izeneko errusiar herrixkan, Tulako probintzian. Aitonsemea zen eta lursail handien jabea gurasoen aldetik; oinordekotzan jaio zen etxaldea eta hirurehun serbu edo langile bereganatu zituen. Leinargia izaki, Lege-karrera ikasten hasi zen arren. Armadan sartu eta Krimeako gerratean esku hartzera iritsi zen.

Bere lehen obrak autobiografikoak dira edota gerra-esperientzien berri ematen dutenak. Gero-
ra armadatik aldendu eta Ingalaterra eta Alema-
nian zehar bidaiak egin ondoren Jasnaia Poliana-
ko bere sailetan kokatu zen ingurumarietako
jende apalarentzat baliagarri izan zitekeen siste-
ma pedagogiko bat sortzeko asmoarekin.

1862an ezkondu eta bere sailetan patxadan
«Gerra eta Bakea», Napoleonek Errusiara egin-
dako espedizioko gertakariez mamituriko nobela
luzea idazteari ekiten dio. Faszikuluka argia ikusi
zuen nobela oparo honen ondotik «Ana Kareni-

na» idatzi zuen, bere garaiko errusiar gizartearen azterketa eta erretraturik hoberena.

Jendea zoriontasunera eraman nahiko bere idealismoan aurrera egin ahala, erlijio-krisia izatera iritsi zen eta dogmak alde batera utzirik, deismo lauso batean murgildu zen: naturaren sinpletasunera itzuli eta aberastasunak ez zirela kontutan hartzekoak predikatzeari ekin zion. Erlijio-kezka horren fruitu izan zen «Nire aitorkizuna» liburua. Ondoren kaleratu zituen obretan heldutasun ukaezina nabari da; horien artean «Kreutzerren sonata» eta «Berpizkundea» aipatu beharko genituzke. Bere indibidualismo filosofiko eta erlijiozkoak eliza ofizial errusiarrarekiko bihurritzera eraman zuen eta Sinodo Santuak eskomikatu egin zituen Tolstoiren obrak. Emaztearekin ere gatazka eta konponezin ugari izan zuen bere jokabide bitxi edo ulergaitzak zirela bide.

1910ean, Tolstoik bere etxea utzi eta alde egin zuen trenbide bateko bakardadean era misteriozuan hil zen arte.

Tolstoik entziklopedia baten oparotasun eta aberastasuna ditu bere obretan. Horditurik sentitzen da errealitatearen ikuspenaren aurrean, baina idealismo estetikoaren defentsa egiten ahalegintzen da. Jainkoagan sinesten badu ere, bere irudi eta itxurara taiutzen du. Dostoievski-rekin batera, Dickens, Stendhal, edo Balzac-en pareko narratzaile-bikotea eratzen du Errusian, XIX mendeko literaturan nobela urrezko gaindegietaraino jaso.

«Ivan Ilitxen Heriotza» estudio psikologiko bikain bat da. Funtzionario baten baitan gauzatzen den bizitza errutinazkoaren ikuspegia eskaintzen digu bertan karrera, ezkontza eta gurasotasunaren zuinek zertxobait arindua. Ivan Ilitx, protagonistak, bere bizitzaren azken aldean, heriozko gaitza batek sortutako samin eta oinazeekin «kontzientzia hartzen» du eta ordura arte inoiz ez bezalako argitasunez ikusten ditu bere burua eta ingurunea. Pixkanaka, bere

izpiritualitateaz jabetzen da. Heriotza hurbildu ahala bizitzaz gero eta kontzientzia handiagoa hartzen du eta horrela gaztaroa eta helduaroa zentzugabekeria hutsal gisa agertzen zaizkio. Bizitza, amildegira doan harriaren gisara, gero eta abiadura handiagoz ikusten du. Bizitza meta-
kor bihurtzen zaio eta heriotzaren atalasean argi-osin sakon eta distiratsu. Analisi psikologiko fina den hau, heriotzari buruzko intuizio sarko-
rez oreturik dago.

Xabier Mendiguren

IVAN ILITXEN HERIOTZA

Justizi Palazioko eraikuntza handian, Melvinskitarren auzi-ikusketako atsedenaldi batean, epaimahaikideak eta fiskala Ivan Egorovitx Xebeken despatxuan bildu eta Krasovskiren kasuaz hasi ziren hizketan. Fiodor Vasilievitx berotu egin zen, auzi hura ez zegokiola epaitegiari adieraziz; Ivan Egorovitxek bereari eusten zion; Piotr Ivanovitxek, hasieratik hizketan sartu ez zelarik, ez zuen esku hartu eta ekarri berriak zituzten «Vedomost» egunkariaren aleei begira ziharduen bakarrik.

— Jaunok! —esan zuen—, Ivan Ilitx hil da.

— Ba ote gero?

— Hara, irakur ezazu —esan zion Piotr Vasilievitxi ale irten berri usaintsua luzatuz.

Zerrenda beltzez inguratua hauxe zegoen inprimaturik: *«Praskovia Fiodorovna Golovinak doluminez adierazten die adiskide eta ahaideei bere senar maitearen heriotza, Ivan Ilitx Golovin Justizi Palazioko kidearena, zeina 1982ko otsaila-*

ren 4ean jazo baita. Gorpuaren ehorzketa ostira-lean izango da, eguerdiko ordu batean».

Ivan Ilitx bilduta zeuden jaun haien lankidea izana zen eta denek maite zuten. Baziren zenbait aste gaixo zegoela; ziotenez eritasun sendaezina zuen. Artean bere lanpostuaren jabe zen, baina hiltzen baldin bazen, agian Alekseiev izendatuko zuten haren lanposturako, eta Alekseieven lanposturako, berriz, Vinnikov edo Xtabell. Honela, bada, Ivan Ilitxen heriotzaren berri izatean, despatxuan bildurik zeuden jaun haiek aurrena pentsatu zuten ea zer eragin izan ote zezakeen heriotza hark epaimahaikideen beren edo ezagunen lanpostu-aldaketan edo igoeran.

«Orain, seguru aski, Xtabellen edo Vinnikoven postua hartuko dut —pentsatzen zuen Fiodor Vasilievitxek—. Aspaldidanik agindua daukat, eta igoera honek zortziehun errubloko gehikuntza esan nahi du niretzat, kantzelaritza aparte.»

«Kalugako neure koinatuaren tokialdaketa eskatu beharko dut orain —pentsatu zuen Piotr Ivanovitxek— Emaztea oso poztuko da. Orain

ezingo du esan ezer egin ez dudarik bere ahai-
deen alde.»

— Pentsatzen nuen nik ez zela altxatuko —
esan zuen ozenki Piotr Ivanovitxek— Tamalga-
rria da.

— Zer izan du bada, egiatan?

— Medikuek ezin izan dute zehaztu. Edo
hobeto esateko, zehaztu dute, baina nork bere
erara. Azkeneko aldiz ikusi nuenean, sendatuko
zela iritzi nion.

— Ni, berriz, ez naiz festez geroztik bere
etxean izan. Beti gerorako uzten nuen.

— Ba al zuen ondasunik?

— Dirudienez emazteak badu zertxobait.
Baina huskeria bat.

— Joan egin beharko da. Nahikoa urrun bizi
dira.

— Zure etxetik urrun. Zure etxetik dena dago
urrun.

— Ezin dit barkatu, ibaiatz bestaldean bizi iza-
tea —esan zuen Piotr Ivanovitxek Xebeki irribar-
re eginez. Eta hirietako distantzia handiez hitz
egin eta bilerara joan ziren.

Heriotza honek bakoitzarengan ekar zitza-keen lekualdaketa eta zerbitzuzko izendapen posibleei buruz sortarazi zituen gogoetez aparte, ezagun hurbilaren heriotzaren gertakariak berak, berria jakin zutenengan beti gertatu ohi denez, alaitasun-sentimendua eragin zuen bera hil zelako eta ez norbera.

«Hori hil egin duk; eta ni ez» —pentsatu eta sentitu zuen bakoitzak. Hurbileko ezagunek, Ivan Ilitxen adiskide omen zirenek gainera, gogoz kontra pentsatu zuten oso higuingarriak ziren komenientziazko eginbehar batzuk bete, eta hiletara eta alargunarengana joan beharko zutela doluminezko bisitan.

Denetan hurbilenak Fiodor Vasilievitx eta Piotr Ivanovitx ziren.

Piotr Ivanovitxek kide izan zuen Zuzenbide Eskolan eta zordun sentitzen zen Ivan Ilitxekiko.

Bazkaltzen ari zirela emazteari Ivan Ilitxen heriotzaren berri eman eta gogoetak egin zituen koinatua bere administrazio-eskualdetik beste tokiren batera aldatzeko zegoen ahalbidez. Piotr Ivanovitx, atsedena hartzeko etzan gabe, jantzi fraka eta Ivan Ilitxenera joan zen. Ivan Ili-

txen etxearen ate nagusian karroza bat eta bi zalgurdi zeuden. Behean, ezkaratzean, arropagakotik hurbil, hormaren kontra zerraldoaren estalkia zegoen, zetazko oihal distirantepean, luxuzko mendelez apaindua. Lutuz jantziriko bi andrek larruzko berokia erantzi zuten. Bata Ivan Ilitxen arreba zen, ezaguna, eta bestea andre ezezagun bat. Schwartz, Piotr Ivanovitxen adiskide bat jaitsi zen eskaileratan behera, eta azken mailan etorri berriaz ohartzean gelditu eta keinu bat egin zion, esanez bezala: «Inozokeria bat egin du Ivan Ilitxek; guk biok ez bezala.»

Schwartzen aurpegia patilla luzeekin eta bere irudi mehe osoa frakez jantzia, beti bezala, handiostasunaren jabe zen, eta Schwartzen izaera jostariarekin erabat kontraesanean zegoen handiostasun horrek oraingoan grazia aparteko bat zeukan. Hala pentsatzen zuen Piotr Ivanovitxek.

Piotr Ivanovitxek aurrera pasatzen utzi zien andreei eta haien atzetik astiro igo zen eskailetan gora. Schwartz ez zen mugitu, eta goian geratu zen. Piotr Ivanovitxek ulertu zuen zergatikoa: bistan zegoen orduan bertan bintera non

joka zezaketen hitz egin nahi ziola. Andreak alar-gunaren gelarako eskailerara pasa ziren; eta Schwartzek, bere ezpain handi tolestu eta begirada serioarekin, bekainen mugimenduaz eskuinerantz seinalatu zion Piotr Ivanovitxi, hildakoaren gelarantz.

Piotr Ivanovitx sartu egin zen, beti gertatzen denez, egin behar zuenaz ez baiti. Gauza bakarra zekien, kasu hauetan beti ongi etortzen zela aitaren egitea. Ez zegoen ziur aitarenekin batera gurketak ere egin behar ote ziren eta horregatik erdibideari heldu zion: gelara sartu eta aitaren egiteari eta pixkatxo bat makurtzeari ekin zion. Eskua eta buruaren mugimenduek uzten zioten neurrian, aldi berean gela miatu zuen. Bi mutil gazte ari ziren gelatik irteten une hartan: bata ikasle bat, itxuraz, hildakoaren iloba zena. Atso zahar bat zirkînik egin gabe zegoen. Eta bekainak estrainioki kurbatuak zituen andre bat aha-peka hitz egiten ari zitzaion. Sakristaua, lebitaz jantzia, indartsu, erabakior, ozenki eta adierazkortasunez irakurtzen ari zen, kontraesan guztiak baztertuz; Gerasim morroia pauso arinez Piotr Ivanovitxen ondotik pasatu zen, lurrera zer-

bait eralkiz. Hau ikustean, Piotr Ivanovitxek berehala sentitu zuen desegiten ari den gorpua-
ren usain lausoa. Ivan Ilitxi egindako bere azken
bisitan despatxuan ikusia zeukan morroi hau;
erizain-eginbeharrak betetzen ari zen, eta Ivan
Ilitxek maitasun aparta zion. Piotr Ivanovitxek
aitarenka eta gurka jarraitzen zuen zerraldoa,
sakristaua eta txokoko mahai gainean zeuden
imajinen alderako erdi-norabidean. Gero, eskuaz
egindako mugimenduari luze samarra zela iritzi-
rik, gelditu eta hildakoa miatzen hasi zen.

Hildakoa etzanda zegoen, hildakoak beti ohi
direnez, oso astun, loadarrak hildako-erara
zerraldoaren ohatzean hondoraturik zeuden eta
betirako burua kurbaturik zeukan burko gainean,
eta argizarizko bekoki horia nabarmentzen
zitzaion, hildako guztiei nabarmentzen zaienez
baldoki hondoratuen artean soiluneekin eta
sudurra goiko ezpainaren gainetik gailentzen
zitzaiolarik. Oso aldaturik zegoen, argaldurik
zegoen Piotr Ivanovitxek azkeneko aldiz bisita
egin zionetik, baina aurpegia, hildako guztiena
bezala, ederragoa, eta batez ere, bizitzan izan
zena baino esanguratsuagoa. Aurpegiak egin

beharrekoa egina zegoela adierazten zuen, eta zuzen egina. Gainera, adierazpen horrek zerbait egozten edo gogorarazten zien biziei. Gogorapen hori lekuz kanpo zegoela iruditu zitzaion Piotr Ivanovitxi, edo gutxienez ez zuela berekin zerikusirik. Zerbait higuingarria gertatu zitzaion, eta Piotr Ivanovitx bizkor aitaren egin zuelako, eta bere iritzian bizkorregi, kunplimenduzko arauetarako desegoki bira eman eta atera joan zen. Schwartz itxaroten zeukan alboko gelan, zangoak zabal hedaturik eta bi eskuez bizkararren atzealdean kapelarekin jolasean. Schwartz dotore, txukun eta jostariari egindako begiratu batek adoretu egin zuen Piotr Ivanovitx. Piotr Ivanovitxek ulertu zuen bera, Schwartz haren gainetik zegoela eta ez zela inpresio abailgarrien menpean erortzen. Haren itxurak esaten zuen Ivan Iilitxen hiletan gorabeherak ez zuela inola ere arrazoirik aski izan behar bileraren ordena deuseztatzeko; hau da, inork ezin ziela eragotzi arrats honetan karta-sorta berri bat irekitzea, lekaioak lau kandela ezartzen zituen bitartean; oro har, ez zegoela arrazoirik uste izateko gorabehera hark traba egin behar zienik arrats hura

atsegin igarotzen. Eta hitz hauek xuxurlatu ere egin zizkion Piotr Ivanovitxi, arrats hartan Fiodor Vasilievitxen etxean jokatuko zen partidara elkartzea proposatuz. Baina, agi zenez, Piotr Ivanovitxek ez zuen arrats hartan bintean jokatzeko astrurik. Praskovia Fiodorovna, emakume gizen, moztaka, alderantzizkoa lortzeko egin zituen ahalegin guztiak gorabehera, sorbaldez behera zabaltzen jarraitzen zuena, dena beltzez jantzia, burua beloz estalia eta zerraldoaren aurrealdean zegoen andreak bezain bekain harrotuak zituen, gelatik beste andre batzuekin irten zen eta hildakoaren gelako ateraino lagundurik esan zuen:

— Oraintxe bertan izango da hileta; sar zaitzte.

Schwartz, zehazkabe makurtu zen, eta proposamena ez onartzen, ez ukatzen ez zuelarik, nabarmen geratu zen. Praskovia Fiodorovnak Piotr Ivanovitx ezagutu zuenean, hasperen egin zuen, eta supituki hurbilduz, heldu eskutik eta esan zion:

— Badakit Ivan Ilitxen egiazko adiskide zine-
la —eta begiratu egin zion, hitz hauei zegokien
egintzaren zain.

Piotr Ivanovitxek bazekien lehen aitaren egin
behar bazen, orain eskua estutu, hasperen egin
eta: «Sinetsidazu!» esan behar zela. Eta honela-
xe egin zuen. Eta hau eginik sentitu zuen nahi
zuen emaitza lortua zuela, hunkitu egin zela eta
alarguna ere bai.

— Zatoz nirekin, hileta hasi baino lehen zure-
kin hitz egin behar dut —esan zuen alargunak—
. Emadazu besoa.

Piotr Ivanovitxek besoa eskaini zion eta
barne-geletara zuzendu ziren, Schwartzen aurre-
tik igaroz, honek tristeki begia keinatu ziolarik:

— Kito gure binta! Zu ez bazatoz, beste kide
bat hartuko dugu. Bostok jokatu dugu, libra-
tzen zarenean —esan zuen haren begirada josta-
riak.

Piotr Ivanovitxek artean sakonago eta tris-
teago hasperen egin zuen eta Praskovia Fiodo-
rovnak esker onez estutu zion eskua. Kretona
arrosaz tapizaturiko eta kriseilu goibelekiko are-
toan sartzean, mahaiaren ondoan eseri ziren:

alarguna dibanean, eta Piotr Ivanovitx malgu-
kiak barreiatu zitzaizkion eta gorputzaren pisu-
pean zanpatu zen puf apal batean. Praskovia Fio-
dorovnak abisatu egin nahi izan zion, beste aulki
batean eser zedin, baina abisua bere egoerari ez
zegokiola konturatu eta iritziz aldatu zen. Puf
horren gainean eserita zegoela, Piotr Ivanovitxek
gogora ekarri zuen nola Ivan Iltxek apaindu
zuen areto hura eta beragandik aholku hartu
zuela orri berdeekiko kretona arrosa hura zela-
eta. Dibanean esertzera zihoala mahaiaren
aurretik igarotzean (aretoa trastez eta altzariz
beterik zegoen), alargunari mantila beltzaren
puntila beltza katigatu zitzaion mahaiaren gra-
batuan. Piotr Ivanovitx zutitu egin zen soltatze-
ko, eta harengandik libratu, pufa asaldatzen
eta bigunki gorantz bultzaka hasi zen. Alarguna
bere eskuez puntila soltatzen ahalegindu zen,
eta Piotr Ivanovitx berriro eseri zen azpian erre-
boltatzen zitzaion pufa zanpatuz. Baina alargu-
nak ez zuen erabat soltatu eta Piotr Ivanovitx
berriro altxatu zen, eta pufak berriro asaldatu
eta kirrinka ere egin zuen. Guzti hau amaitu
zenean, alargunak batistazko mukizapi garbia

atera eta negarrari eman zion. Puntilaren eta pufarekiko borrokaren gertaerak lasaitua zuen Piotr Ivanovitx, eta eserita zegoen bekokia zimurturik. Egoera gogaikarri hau Solokov, Ivan Ilitxen zerbitzariak hautsi zuen aditzera eman zuenean Praskovia Fiodorovnak kanposantuan hautatutako lekuak berrehun errublo kostako zela. Utzi negar egiteari eta, Piotr Ivanovitxi bik-tima-aurpegiaz begiratzuz, asko nozitzen zuela esan zion frantsesez. Piotr Ivanovitxek seinale mutu bat egin zuen, zeinak adierazten bait zuen ziurtasun zalantzagabea zuela bestela ezin izan zitekeelakoaz.

— Erre ezazu, mesedez —esan zuen Prasko-
via Fiodorovnak bihotz-zabaltasunezko doinua-
rekin baina aldi berean jausiaz eta Solokovekin
lekuaren prezioaren auzia eztabaidatzen hasi
zen. Piotr Ivanovitx, zigarroa piztu eta entzuten
ari zen alargunak lurraren prezio ezberdinak
xeheki nola galdetzen zituen eta zein hartu nola
erabaki zuen. Honen ondoren, lekuarena amai-
tzean, kantariei buruzko aginduak eman zituen.
Sokolovek alde egin zuen.

— Dena neuk egiten dut —esan zion Piotr Ivanovitxi, mahai gainean zeuden albumak alde batera baztertuz, eta errautsak mahaiari mehatxu egiten ziola ohartzean, errautsontzia luzatzen ahalegindu eta jarraitu zitzaion esaten:

— Azaluskeria deritzot nahigabearengatik ezin naitekeela arazo praktikoez arduratu esateari. Ni, alderantziz, kontsolatzen ez banau ere... barreiatu egiten nau, haren gauzez arduratzek.

Atera zuen berriro mukizapia, negarrari emango balio bezala, eta bat-batean, bere burua menperatuz bezala, inarrosi eta poliki hitz egiten hasi zen:

— Halere gauza bat esan beharrean naukazu. Piotr Ivanovitx makurtu egin zen, pufeko malgukiei banatzen utzi gabe, zeinak berehalaxe hasi bait zitzaizkion mugitzen azpian.

— Azkeneko egunetan izugarri nozitu du.

— Asko sufritu al du? —galdetu zuen Piotr Ivanovitxek.

— Ai, izugarri! Azkeneko minutuetan, orduetan ez dio garrasi egiteari utzi. Azkeneko hiru egun eta gauetan garrasi batean egon da. Ezin

jasanezkoa izan da. Ez dakit nola jasan ahal izan duen hau; hiru atetan zehar entzuten zitzaion. Ene, zenbat sufritu duen!

— Baina ez zen bere senean egongo? —galdetu zuen Piotr Ivanovitxe.

— Bai —xuxurlatu zion alargunak —azkeneko minutura arte—. Hil baino ordu laurden bat lehenago gugandik despeditu eta Volodia eramateko eskatu du.

Gizon baten sufrikarioen pentsamenduak, zeina hain hurbiletik ezagutu baitzuen, mutiko, eskolari alaia zenetik hasita, gero lankide nagusi bezala, bere eta emakumearen azaluskeriaren kontzientzia higuigarria gorabehera, bat-batean izutu egin zuen Piotr Ivanovitx. Ikusi zuen berriro bekoki hura, ezpaina zapaltzen zuen sudur hura, eta gaizki sentitzen hasi zen.

«Hiru egun oinaze izugarritan eta heriotza. Eta hara, hori edozein unetan gerta dakidake niri ere» pentsatu zuen eta une batez oso gaizki sentitu zen. Baina berehala, berak ere nola ez zekielako, hori Ivan Ilitxi eta ez berari gertatu zitzaiolako pentsamendu ohizkoa etorri zitzaion laguntzera, eta berari ezin zitzaiola eta ezingo zitzaio-

la gertatu halakorik; hala pentsatuz aldarte
hondatuko zitzaiola, egin behar ez den gauza,
Schwartzen aurpegiari begiratzuz argi eta garbi
zegoenez. Eta gogoeta hau egin ondoren, Piotr
Ivanovitx baretu eta arreta handiarekin galderak
egiten hasi zen Ivan Iltxen amaieraz, heriotza
abentura bat balitz bezala, Ivan Iltxi bai baina
berari inola ere ez zegokiona.

Zenbait hizketa egin ondoren Ivan Iltxek
nozitutako min fisiko benetan izugarrien xeheta-
sunez (Piotr Ivanovitxek xehetasun horiek Ivan
Iltxen oinazeek Praskovia Fiodorovnaren nerbio-
etan izan zuten erasanetik ezagutu zituen), alar-
gunak, agi zenez, beharrezko zela arazora joatea
erabaki zuen.

— Ai, Piotr Ivanovitx, hau harria, hau harri
ikaragarria, hau harri ikaragarria —eta berriro
negarrari eman zion.

Piotr Ivanovitxek hasperen egin eta itxaron
egin zuen alargunak zintz egin arte. Zin egin
zuenean, alargunak esan zuen:

— Sinetsidazu... —eta berriro hizketari heldu
eta adierazi zuen zer zen, agi zenez, berarekiko
arazo garrantzizko hura; arazoa, senarraren

heriotza zela-eta, galderak egitea zen Estatuaren Altxorretik dirua eskuratzeko. Piotr Ivanovitxi pentsioari buruzko aholkua eskatuko balio beزالako itxura egin zuen; baina honek ikusi zuen berak ez zekizkien xehetasun txikienetarainokoen berri ere bazekiela: heriotza hura zela-eta, Estatuaren Altxorretik atera zitekeen guztiarena; baina berak jakin nahi zuela ea ez ote zegoen diru gehiago ateratzeko modurik. Piotr Ivanovitxek moduren bat pentsatzeari ekin zion; baina apur bat pentsatu ondoren eta bere komenientziaz gure gobernuaren zikoizkeriarengatik marmar egin ondoren, esan zuen, seguru aski, ezin-go zuela gehiago. Orduan alarguna, hasperen egin, eta bere bisitariaz libratzeko modua pentsatzen hasi zen, nonbait. Piotr Ivanovitxek ulertu zuen, itzali zigarroa, zutitu, estutu eskua eta aurregelara joan zen.

Jantokian erloju bat zegoen, Ivan Ilitxek hain pozik zeukana, zaharki-denda batean erosia, eta bertan Piotr Ivanovitxek apaizarekin eta hiletara zetozen ezagun batzuekin topo egin zuen, eta neskabila eder pertxenta ezagun bat, Ivan Ilitxen alaba, ikusi zuen. Erabat lutuz jantzita zegoen.

Gerria oso mehea zuen eta oraindik meheagoa zirudien. Aire goibel, erabakior eta ia sumindua zeukan. Agur egin zion Piotr Ivanovitxi, berau zerbaiten errudun balitz bezala. Alabaren atzean, aire goibel berarekin, Piotr Ivanovitxek ezaguna zuen mutil gazte aberats bat zegoen, epaile instruktorea eta neskaren senargaia omen zena. Piotr Ivanovitx tristeki agurtu eta hildakoaren gelan sartzea zihoan, eta une hartan eskailera-barrenean seme eskolariaren iruditxoak agertu zen: Ivan Iltxen antz izugarria zuen. Ivan Iltx bera txikitan bezalakoa zen, Piotr Ivanovitxek Zuzenbide Eskolan ezagutu zuena bezalakoa. Begiak negarretan zeuzkan, hamahiru hamalau urteko mutiko dohakabeek edukitzen dituzten bezala. Mutikoak, Piotr Ivanovitx ikus-tean serio jarri, eta muzin lotsor bat egin zuen. Piotr Ivanovitx buruaz gur egin eta hildakoaren gelan sartu zen. Hasi zen hileta-zuziak, intsent-sua, erostak, malkoak eta zotinak. Piotr Ivanovitx bekokia zimurturik zegoen, bere oinei begira. Ez zion behin ere hildakoari begiratu eta azkenera arte ez zen eragin aunagarriaren men-pean erori eta lehendabizikoetakoa izan zen irte-

ten. Ez zegoen inor aurregelan. Gerasim, jantokiz-erbitzaria, presaka irten zen hildakoaren gelatik, astindu zituen bere esku indartsuez larruzko beroki guztiak, Piotr Ivanovitxena aurkitzeko eta eskaini egin zion.

— Zer, Gerasim anaia? —esan zion Piotr Ivanovitxek, zerbait esatearren—. Triste al hago?

— Jainkoaren borondatea izan da —esan zuen Gerasimek, bere baserritar-hortz zuri, estuak erakutsiz eta lanean betean murgildutako gizonak bezala, atea bizkor ireki, deitu kotxezainari, lagundu esertzen Piotr Ivanovitxi eta atzera portxera itzuli zen artean egiteko zer zeukan gogoratzen ari balitz bezala.

Piotr Ivanovitxi izugarri gustatu zitzaion aire garbia arnastea intsentsu, gorpu eta azido fenikoaren kiratsaren ondoren.

— Nora zoaz? —galdetu zuen kotxezainak.

— Ez da berandu. Fiodor Vasilievitxen etxetik igaroko naiz.

Eta Piotr Ivanovitx bertara joan zen. Eta hain zuzen ere, lehen errobrearen amaieran harrapatu zituen, eta hala egoki jokatu ahal izan zuten bostek.

Ivan Ilitxen iraganeko historia oso sinplea, arrunta eta guztiz ikaragarria zen.

Ivan Ilitx berrogeita bost urterekin hil zen, Justizi Palazioaren kide zela. Funtzionario baten semea zen, San Peterburgoko ministraritza eta departamendu ezberdinetan karrera egin zuen batena, zeinak erakusten baitu argi eta garbi halakoa ez dela gai garrantzizko eginbeharrak betetzeko, baina bere zerbitzuen luzetasun eta bere eskalafoiarengatik ezin daitekeela kargugabeturik utzi eta horregatik hartzen duela bera-riaz asmaturiko postu fikziozko bat eta sei milatik hamar mila errublotara bitarteko soldata ez-fizkiozko bat, zeinarekin bizi izaten baita zahartzaro aurreratura arte.

Halakoa izan zen Ilia Efimovitx Golovin kontseilari sekretua, zenbait erakunde alferrikakoren kide alferrikakoa.

Hiru seme-alaba zituen. Ivan Ilitx bigarrena zen. Zaharrenak aitaren karrera bera zeraman, nahiz eta beste ministraritza batean, eta jadanik

hurbil zuen inertziaren indarrez soldata eskuratzeko deneko zerbitzu-aroa. Hirugarren semea frakasatua zen. Gaizki geratua zen izandako postu guztietan eta orduan trenbideetan zegoen enplegaturik: aitak, anai-arrebek eta batez ere berauen emazteek berarekin topo egiteko gogorik ez izateaz gainera, ezinbesteko premietan soilik gogoratzen ziren haren existentziaz. Arreba Gref baroiarekin ezkonduarik zegoen, aitaginarreba bezala, San Peterburgoko funtzionario zen batekin. Ivan Ilitx *la phénix de la famille* omen zen. Ez anaia nagusia bezain hotz eta maratza, ezta txikia bezain eroa ere. Bien tartekoa zen: argia, bizkorra, begikoa eta jatorra. Anaia txikiarekin batera, Zuzenbide Eskolan ikasia zen. Txikiak ez zuen amaitu eta bosgarren ikasturtetik bidali egin zuten; Ivanek, aldiz, ongi amaitu zituen ikasketak. Zuzenbide Eskolan bere bizitza guztian izango zena izan zen: gaitasunez hornituriko gizasemea, alaia, onbera eta lagunkoia, nahiz eta aldi berean bere eginbehartzat zeukanaren betetzaileria izan; eta eginbehartzat hartzen zuen goiko postuetan zeudenek halakotzat hartzen zuten guztia. Ez zen inoiz lausenga-

ria izan, ez mutikotan eta ez gero gizon nagusitan ere, baina bere urte gazteetatik, euliak argitara bezala, gizartean goiko postuak zeuzkate-nengana erakarria sentitzen zen, haien manierak eta bizitzari buruzko ikuspegiak imitatzen zituen eta adiskide-harremanak ezartzen beraiekin. Haurtzaro eta gaztaroko grina guztiak aztarna handirik utzi gabe igaro ziren haren baitatik; bere burua sentiberatasunera eta banitatera eman zuen-eta azkenik, ezaugarri jasoenetara-liberalitatera; baina beti muga jakin batzuen barruan, zeinak ongi erakusten bait zuen bere zentzu ona.

Zuzenbide-Eskolan lehenago zenbait egintza burutua zen bilaukeriak begitantzen zitzaizkion eta bere buruaren kontrako arbuioa sorrarazten zizkioten burutzen zituen garaian; baina gerora, goian zeudenek ere egintza hauek burutzen zituztela ikusirik eta ez zeuzkatela txartzat, berak ez zituen ontzat eman, baina erabat ahaztu zituen eta inola ere ez zen mingostu beraiek gogoratzean.

Zuzenbide Eskolatik irtetean eta aitagandik uniformeaz hornitzeko dirua jasorik, Ivan Iltxek

Xarmerrenean eragin zuen jantzia eta erloju-bitxien artean domina bat eseki zuen «*respice finem*» inskripzioarekin; despeditu zen printze eta irakasleengandik, eman zien afari bat lagunei Donon-enean eta maleta berri modako, barne-arropa, jantzi eta bizarra kentzekoak, tokadore-gauzak eta bidai manta almazen hoberenetan eragin eta erosiekin, probintzia batera abiatu zen gobernariaren arazo partikularretako funtzionario postua hartzera, zeina aitak lortua baitzuen.

Probintzian Ivan Ilitxek laster sortu zion bere buruari egoera erraz eta atsegina, Zuzenbide Eskolan izan zuena bezalakoa. Zerbitzatu, karre-
ra egin eta aldi berean, era atsegin eta egokian jostatzen zen; noizean behin bidaiak egiten zituen buruzagien aginduz eskualdeetara, duintasunarekin egoten zen, bai goikoen eta bai behekoen aurrean, eta zehaztasunez eta jatortasun erostezinez betetzen zituen gomendatzen zizkioten eginbeharrak, zeinez harrotasuna derrigorrean sentitzera beharturik aurkitzen zen, batez ere sektarioei buruzkoak zirenean.

Zerbitzu-lanetan, bere gaztetasuna eta olgeta arinetarako zuen joera gorabehera, erabat begiratu, ofizial eta zorrotz ere agertzen zen; baina gizartean sarritan jostari, asmagin eta guztiz onbera zen, zuzen eta *bon enfant*, buruzagiek eta haien emazteak beratzaz esan ohi zuteenez, etxekotzat zeukaten-eta.

Probintzian bazituen harremanak dama batekin, zeinak gaina hartu baitzion legegizon modazaleegiari; bazuen neskalgun modista bat; bazituen parrandak pasuko militar-laguntzaileekin, baita paseoak ere hiriko kale urrunetan barna afalostean; bazituen lausenguak buruzagiarentzat eta baita buruzagiaren emaztearentzat ere, baina guzti hau hain eratasun tonu handian gertatzen zen, non ezinezkoa izango baitzatekeen hitz txarrez aipatzea: guzti hau *il faut que jeunesse se passe* frantsesezko esaeran laburbiltzen zen. Guzti hau esku garbiekin, alkandora garbiekin eta frantsesezko hitzekin burutzen zen eta, garrantzizkoena, gizarterik garaienean, ondorioz, goian zeudenen onarpenarekin.

Honela zerbitzatu zuen Ivan Ilitxek bost urtez, eta aldaketa gertatu zen zerbitzuan. Auzi-

erakunde berriak sortu ziren; gizon berrien premia sortu zen.

Eta Ivan Ilitx izan zen gizon berri horietako bat.

Instrukzio-epaile postu bat eskaini zitzaion Ivan Ilitxi, eta Ivan Ilitxek hartu egin zuen, nahiz eta postu hori beste probintzia batean egon eta beharrezko izan sortutako harremanak uztea eta berriak egitea. Adiskideek lagundu egin zuten Ivan Ilitx, taldeko argazkia atera zuten, zilarrezko zigarrontzia oparitu zioten eta postu berrira abiatu zen.

Instrukzio-epaile gisa Ivan Ilitx *comme il faut*, zuzena izan zen, eta zerbitzuko eginbeharrak eta bizitza pribatua bereizten jakin zuen eta arazo partikularretako funtzionario zenean bezala, guztien errespetua bereganatzen zuen. Instrukzio-epailetzak berak eskaintzen zion Ivan Ilitxi lehengoak baino askoz interes eta erakargarritasun handiagoa. Lehengo postuan atsegina zitzaion ibilera librean Xarmer jantzigintzako uniformearekin, errezibituak izateko orduaren zain zeudenen eta buruzagiaren despatxuan sartzen eta berarekin tea hartu eta zigarro bat erretzeko

esertzen ikustean inbidia zioten bisitarien aurretik pasatzea, baina zuzenean bere eskumenean zeuzkan pertsonak gutxi ziren. Horiek komisariak eta erlijio-disidenteak ziren, mandaturen bat ematen ziotenean; eta era samurrean, ia kidez kide tratatu nahi izaten zituen bere eskumenean zeuzkanak; eta zapaltzeko gauza zen hark, adiskidekor, sotilki tratatzen zituela sentiarazi nahi izaten zien. Baina horrelako pertsonak gutxi ziren orduan. Orain, berriz, instrukzio-epaile zelarik, Ivan Ilitxek sentitzen zuen guztiak, inolako salbuespenik gabe, pertsonarik garrantzitsuen eta beren buruez asetuenak ere bere eskuetan zeuzkala eta aski zuela hitz jakin batzuk paper tinbredunean idaztea, pertsonarik garrantzitsuena, bere buruaz asetuenak ere aurrera ekar diezaioten salatu edo lekuko gisa, eta esertzera gonbidatzen ez baldin bazuen, zutik bere aurrean egon eta galderei erantzun beharko ziela. Ivan Ilitxek ez zuen sekula bere ahalaz abusatzen, alderantziz, adierazpenak biguntzen ahalegintzen zen; baina ahaltsun horren kontzientzia eta berori biguntzeko posibilitatea ziren kargu berriaren interes eta erakar-

garritasun nagusienak. Karguan bertan, eginkizunetan, Ivan Ilitxek laster bereganatu zuen karguarekin zerikusirik ez zuten gorabehera guztiak alde batera uzteko ohitura eta arazorik korapilatsuena ere halako moldez errazten zuen, non paperean kanpo-forma bakarrik islatzen zen eta hartatik erabat bazterturik gelditzen baitzen bere iritsi pertsonala eta, areago oraindik, beharrezko formalitate guztiak betetzen zituen. Hau gauza berria zen. Eta bera izan zen lehenengotakoa 1864ean landuriko arauak praktikan jartzen.

Hiri berrira instrukzio-epaile bezala joatean, Ivan Ilitxek ezagupide eta harreman berriak egin zituen, jarrera berri bat hartu eta tonua zertxobait aldatu zuen. Probintziako agintariengandik apur bat urrundurik egoten ahalegindu zen eta hirian bizi ziren judikaturako moduko aitonsemeen artean hautatu zituen adiskideak, gobernuarekiko halako nahiez-antxa bat hartuz, liberaltasun neurrizko eta hiritartasun zibilizatu batekin. Horregatik, bere janzeraren dotorezia batere aldatu gabe, Ivan Ilitxek, bere eginbehar berrian, kokotsa afeitatzeari utzi eta bizarrari

nahi zuen tokian libreki hazteko aukera eman zion.

Ivan Ilitxen bizitza, hiri berrian, oso atsegina izan zen: gobernadorearen aurka sasitzen ari zen gizartea adiskidekor eta atsegina zen; soldata hobia zuen eta bizitzako gozamen nabarmenei whistarena gehitu zitzaien, hartara jokatzeko hasi baitzen Ivan Ilitx eta alaitasunez egiten zekien hori, eta bizkor atzematen zituen jokoa-ren sotiltasunak, horrela beti irabazle gertatzen zelarik.

Hiri berrian bi urtez karguan egon ondoren emaztea izango zuenarekin topo egin zuen Ivan Ilitxek. Praskovia Fiodorovna Mikhel Ivan Ilitx mugitzen zen zirkuluko neskatarik erakargarriena, argiena eta distiratsuena zen. Instrukzio-epailetzako lanetatik atsedena hartzeko aukera ematen zioten olgeten artean, harreman arin alaiak ezarri zituen Praskovia Fiodorovnarekin.

Ivan Ilitxek, gobernadorearen laguntzaile gisa, dantza egiten zuen; orain instrukzio-epaile zelarik, salbuespen gisa dantza egiten zuen. Dantza egiten zuen baina erakunde berrietan eta bosgarren klasean zegoenak bezala, baina

dantza egin beharra baldin bazegoen, beste edo-
nork baino hobeki egin zezakeela erakusteko gai
zen. Horrela, noizean behin bigiraren amaieran
Praskovia Fiodorovnarekin dantza egiten zuen
eta batez ere dantzaldia haietan irabazi zuen
Praskovia Fiodorovna. Hau beratzaz maite mindu
zen. Ivan Ilitxek ez zeukan ezkontzeko asmo
garbi eta zehatzik, baina neskatila maitemindu
zitzaionean, bere buruari galdera hau egin zion:
«Izan ere, zergatik ez ezkondu?» —esan zuen
bere baitan.

Praskovia Fiodorovna polita eta kapare-jatorri
onekoa zen, etxalde txiki baten jabea. Ivan Ili-
txek aukera distiratsuago baten mira izan zezakeen
baina hau ere ona zen. Ivan Ilitxek bere sol-
data zuen, eta neskatilak ere, hala espero zuen,
berea ekarriko zuen. Etorki onean sartuko zen
eta emakumea atsegina, polita eta ohitura one-
takoa zen. Bere emaztegaiaz maitemindu zelako
edota harengan bizitzari buruzko ikuspegi bera
aurkitu zuelako ezkondu zela Ivan Ilitx esatea,
bere gizarteko pertsonak aukera onartzen ziotela
ezkondu zela esatea bezain bidegabea izan-
go litzateke. Ivan Ilitx bi eratako arrazoiengatik

ezkondu zen: emazte hau hautatzean bere gogoko zerbait egin zuelako, eta aldi berean, pertsonarik gorenak egokitzen jotzen zutena ere egin zuelako.

Eta Ivan Ilitx ezkondu egin zen.

Ezteien prozesua bera eta ezkon-bizitzaren lehen aldia ezkon-laztan, altzari berri, zerbitzu berri, arropa berri eta guzti, harik eta emaztearen haurdunaldira arte oso bizkor igaro zen, halako moldez, non Ivan Ilitx pentsatzen hasi baitzen bizitza arin, atsegin, alai, beti gisako eta gizarteak onartuari, berak bizitza orokorraren zerbait berezkitzat zeukanari, ezteiak izaera aldatu ordez areagotu egin ziola. Baina gero, emaztearen haurdunaldiko lehen hilabeteekin, zerbait berria, espero gabea, higuingarria, astuna eta gogaikarria sortu zen, espero ez zitekeen eta albora utzi ezin zuen zerbait.

Emazteak inolako arrazoirik gabe, Ivan Ilitxi iruditzen zitzaionez, *de gaieté de coeur*, berak esan ohi zuenez, bizitzako atsegin eta gozamena desegiten hasi zitzaion: inolako arrazoirik gabe zelati jartzen zitzaion, atergabeko adiguritasunak eskatzen zizkion, guztiarengatik protestak

eta eszena higuingarri eta zantarrak egiten zizkion.

Hasiera batean Ivan Ilitxek libre ikustea espero zuen bere burua lehenago salbatu zuen bizimodu arin eta gisakora joz: ahaleginak egin zituen emaztearen aldarztearen aurrean ez ikusiarena egiten eta lehenagoko bizimodu arin eta atseginera joz: adiskideak etxera gonbidatzen zituen kartetan jokatzera, klubera joaten zen edo adiskideengana. Baina behin emaztea halako energiarekin eta hain hitz zakarrez hasi zitzaion iraintzen eta hain temati jarraitzen zuen iraintzen bere eskakizunak betetzen ez zituen bakoitzean, begien bistakoa zenez harik eta amore eman arte ez gelditzeko asmo sendoarekin, hau da, etxean eseri eta bera bezala asper-tu arte, non Ivan Ilitx izularritu egin baitzuen. Ulertu zuen ezkon-bizitza —emaztearekikoa bederen— ez zetorrela beti bat bizitza atsegin eta gisakoarekin, alderantziz, sarritan suntsitu egiten zuela, eta horregatik ezinbesteko zuela suntsiketa horietatik aldentzea. Eta Ivan Ilitxek horretarako baliabideak bilatzeari ekin zion. Kargua zen Praskovia Fiodorovnari ezartzen zion

zerbait, eta Ivan Ilitx karguaren bitartez eta hari zerizkion betebegarrez emaztearekin borrokan eta menpekotasunik gabeko bere mundua babesten hasi zen.

Neskatoaren jaiotza eta bularra emateko ahalegin arrakasta gabeekin, neskatoaren eta amaren gaixotasun benetako eta ametsezkoekin, zeinetan Ivanen partaidetza eskatzen baitzen, baina zeinetarik berak ezin baitzuen ezer ulertu, gero eta ezinbestekoagoa bihurtu zitzaion Ivan Ilitxi familiaz aparte mundu bat babestearen beharrezana.

Zenbat eta emaztea haserretuago eta eskatzaileago zegoen, Ivan Ilitxek hainbat eta gehiago lerratzen zuen bizitzaren grabitate-zentroa bere kargura. Gero eta zaletasun handiago hartu zion karguari eta lehen baino goranahiago bihurtu zen.

Oso bizkor, ezkondu eta urte beteratsu, Ivan Ilitxek ulertu zuen ezkontzak zenbait erosotasun ematen bazuen ere bizitzan, funtsean oso korapilatsu eta zaila zela, zeinarekiko bere eginbeharra betetzeko, hau da, gizarteak onarturiko bizi-

tza gisakoa eramateko, jarrera jakin bat hartu beharra dagoela, baita karguarekiko ere.

Eta jarrera hori hartu zuen Ivan Ilitxek bere ezkon-bizitzarekiko. Famili bizitzari otordua, etxekoandrea eta ohearekiko erosotasunak eskatzen zizkion bakarrik, horiek emateko gai bait zen eta, batez ere, gizarte-bizitzak zedarritzen zituen kanpo-formen gisakotasuna. Gainerakoan atsegintasun alaia bilatzen zuen eta aurkitzen bazuen, esker oneko bihurtzen zen; baina kontrakarra eta umore txarrarekin topo egiten bazuen, bat-batean sartzen zen berak babesturiko karguaren beste munduan eta bertan aurkitzen zuen atsegina.

Ivan Ilitx funtzionario ontzat zeukaten eta hiru urteren buruan fiskalaren ondoko izatera iritsi zen. Betebehar berriek, beraien garrantziak, norbait auzitara eraman eta kartzelaratzeko ahalmenak, jendaurreko hitzaldiek, eta sail honetan Ivan Ilitxek lortutako arrakastak, guzti honek karguari gehiago lotzera eraman zuten.

Seme-alaba gehiago etorri ziren. Emaztea gero eta umore txarrekoago eta muturtuago zegoen, baina Ivan Ilitxek etxeko bizitzarekiko

hartua zuen jarrerarekin ia iragaztezin bihurtu zuen bere burua haren umore txarraren aurrean.

Hiri berean zazpi urte karguan egon ondoren, Ivan Ilitx fiskal karguarekin beste probintzia batera aldatu zuten lekuz. Joan ziren hara, dirua urria zen eta emazteak ez zuen atsegin leku berria. Soldata lehen baino handiagoa zen, baina bizimodua garestiago zegoen; gainera, bi haur hil zitzaizkien, eta horregatik famili bizitza higuingarriagoa bihurtu zitzaion Ivan Ilitxi.

Praskovia Fiodorovnak leku berrian gertaturiko ezbehar guztien errua leporatzen zion senarrari. Senarra eta emaztearen arteko hizketagai gehienek, seme-alabei buruzkoek batik bat, eztabaidak gogoraraztera eramaten zuten, eta eztabaida berriak prest egoten ziren uneoro sortzeko. Sortzen ziren senar-emazteen artean maitasunaldi labur batzuk baina labur irauten zuten. Halakoak irlak ziren, zeinetan denbora baterako trikatzen baitziren, baina berehala, elkarrengandik urruntzean sortzen zen etsaigo sorraren itsasoan barrena berriro abiatzeko. Urruntze horrek nahigabetu zezakeen Ivan Ilitx, baldin eta berak uste izan balu, ez zuela hala izan behar, baina

orain egoera hori normaltzat ez ezik familian zuen bere jardueraren helburutzat ere hartzen zuen. Helburua nahigabe horietatik gero eta gehiago urruntzean zetzan eta beroriei zerbait kaltegabea eta gisakoaren izaera ematean; eta hori gero eta denbora gutxiago familiarekin emanek lortu zuen, eta etxean egotera beharturik aurkitzen zenean, bere jarrera kanpotarren presentziaz sendartzen ahalegintzen zen. Baina kargua zen Ivan Ilitxek zeukan gauzarik garrantzizkoena. Eta karguaren mundu horretan biltzen zuen bizitzako interes guztia. Eta interes horrek irensten zuen. Bere ahaltasunaren kontzientziak, porrot eragin nahi zion edonori porrota eragiteko ahalbidearenak, kanpotik begiratuta ere epaiketaretoan sartzen zeneko itzalak, eta bere menpekoekin edukitzen zuenak, bere gainekoen eta azpikoen aurrean zeukan arrakasta eta, batez ere, arazoak gidatzen zitueneko maisutasunak, zeina nabaritzen baitzuen, guzti honek atsegina ematen zion, eta adiskideekin izaten zituen hizketaldi, otordu eta whistarekin batera, bizitza betetzen. Horrela bada, oro har, Ivan Ilitxen bizi-

tza berak uste zuen modura zihoan: atseginez eta gisaz.

Horrela bizi izan zen beste zazpi urtez. Alaba zaharrenak hamasei urte zituen, mutiko bat ere hil zitzaion eta gimnasioko ikasle zen beste mutil koskor bat zegoen, eztabaidagai izaten zena. Ivan Ilitxen Zuzenbide Eskolara eraman nahi zuen baina Praskovia Fiodorovnak gimnasia eramatea lortu zuen. Neskak etxean ikasten zuen eta ongi ari zen hazten; mutila ere ez zebilen gaizki ikasketetan.

III

Horrela igaro zen Ivan Ilitxen bizitza ezkontzaz gerozko hamazazpi urteetan. Ordurako lekualdaketa zenbaiti uko egindako fiskal zaharra zen, leku desiragarriago bati itxaroten zegoena, eta ustekabeen gertakari atsekabezko bat jazo zen, bizitza lasaia erabat nahastu ziona. Ivan Ilitx unibertsitate-hiri batean lehendakari karguari itxaroten zegoen, baina Goppek aurrea hartu zion eta lekuaz jabetu zen. Ivan Ilitx sumindu egin zen, ahakarrak egiten hasi eta berarekin eta bere buruzagiarekin haserretu zen; haiek hoztu egin zitzaizkion eta hurrengo izendapenean ere alboan utzi zuten.

Hori 1880 urtean gertatu zitzaion. Ivan Ilitxen bizitzako urterik zailena izan zen. Urte horretan gertatu zitzaion, alde batetik, soldata ez iristea bestetik, guztiek ahazturik edukitzea eta berak bidegabekeriarik handien eta krudelentzat zeukana, besteek hori erabat gauza normaltzat hartzea. Aitak berak ere ez zuen uste izan laguntzeko obligaziorik zeukanik. Guztiek bertan behera

utzia zeukatela sentitzen zuen, 3.500 errublota-ko soldatarekin bere egoera erabat normala eta desiragarritzat hartzen zutelarik. Berak, ordea, egin zizkioten bidegabekeria horien kontzien-tziarekin, emakumearen marmarra atergabeare-kin eta bere ahalbideez gainerik bizi izanez egin-dako zorrekin, berak bazekien bere egoera ez zela mola ere normala.

Urte hartako udan, gastuak arintzeko, opo-rak hartu eta baserrira joan zen emaztearekin uda ematera, Praskovia Fiodorovnaren nebare-nera.

Baserrian, kargutik aparte Ivan Iltxek lehen-dabiziko aldiz sentitu zuen gogaita, baina gogait eramanezina, eta erabaki zuen hala ez zegoela bizitzerik eta neurri zorrotzen batzuk hartu beha-rra zeukala.

Gau oso bat lo egin gabe eman ondoren, terrazan alde batetik bestera zebilela, Peterbur-gora joatea erabaki zuen gestioak egitera, beste haiek, behar bezala balioztatu ez zuten haiek zigortzeko, beste ministraritza batera tokiz alda-tzeko.

Biharamunean, emaztea eta koinatuaren gomendio guztiak gorabehera, Peterburgora joan zen.

Gauza bakar batengatik joan zen: bost mila errubloko postu bat eskatzeagatik. Berdin zitzaion ministraritza, joera edo jarduera mota. Postu bat behar zuen bakarrik, bost mila errubloko postu bat administrazioan, bankuan, trenbi-deetan, Maria enperadoresaren erakundeetan, aduanan bertan ere bai, baina derrigorrean bost mila errublo eta balioztatzen ez zuten ministrari-tzatik derrigorrean irtetea behar zuen.

Eta hara non Ivan Iilitxen bidaia horrek arrakasta harrigarri eta ustekabekoa izan zuen. Kurs-ken ezagun bat igo zen lehen klasera, F.S. Ilin, eta Kurskeko gobernadoreak bidalitako telegra-ma baten berri eman zion, ministraritzan egun batetik bestera iraulketa bat gertatzekoa zela esanez: Piotr Ivanovitxen postuan Ivan Semiono-vitx jarriko zutela.

Ustezko iraulketak, Errusiarentzat zeukan esanahiaz aparte, esanahi berezia zuen Ivan Ili-txentzat ere, zeren pertsona berri bat, Piotr Petrovitx sustatzeak eta, agerikoa zenez, adiski-

de zuen Zakhar Ivanovitx ere bai, abantailarik handiena baitzekarkion Ivan Ilitxi. Zakhar Ivanovitxek lagun eta adiskide zuen Ivan Ilitx.

Moskun berretsi egin zioten albistea. Eta Peterburgora iristean, Ivan Ilitxek Zakhar Ivanovitxekin topo egin eta Justiziako ministraritza berean goren postu bat emango zitzaion promesa jaso zuen.

Handik aste betera emazteari telegrafiatu zion:

«Zakhar Millerren postuan lehen sinaketakotan izendapena hartzen dut».

Pertsonen aldaketa honi esker, Ivan Ilitxek ustekabeen bere lagunak gainera bi mila gora-gora jartzen zuen izendapena hartu zuen, bost mila errubloko soldata eta lekualdaketa-gastue-tarako hiru mila eta bostehunekin. Lehengo etsaien eta ministraritza osoaren kontrako herra guztia ahaztu eta Ivan Ilitx erabat zoriontsu izan zen.

Ivan Ilitx pozik, gogobeterik, aspaldian ez bezala, itzuli zen baserrira. Praskovia Fiodorovna ere poztu egin zen eta bien artean menia egin zuten. Ivan Ilitxek Peterburgon nolako barrera

egin zioten kontatu zuen, nola etsai izandako guztiak orain bere aurrean lotsatzen eta umilia-tzen zitzaizkion, nola zioen inbidia posizioaren-gatik eta, batez ere, zeinen biziki maite zuten Peterburgon.

Praskovia Fiodorovnak entzun eta sinesten balio bezalako itxura egin zuen, ez zion ezertan ere kontra egin, eta planak egin zituen joan behar zuteneko hirian bizimodua antolatzeko. Eta Ivan Ilitxek pozarren ikusi zuen plan horiek bere plan zituela, haiekin bat zetorrela eta berri-ro bere bizitza trabatsua zegokion benetako izaera bartzen ari zela: alai, atsegin eta gisakoa.

Aldi laburrerako etorria zen Ivan Ilitx. Iraila-ren 10ean hartu behar zuen karguaren jabegoa eta, gainera, denbora behar zen leku berrian gauzak antolatzeko, probintziatik gauza guztiak aldatzeko, gauza asko erosi eta eragiteko, hitz batean: bere bailan erabaki zuenez gauzak anto-latzeke eta baina Praskovia Fiodorovnak bere barrenean erabaki zuenez antolatzeke ere.

Eta orain, dena hain egoki antolatu eta emaz-tearen helburuekin bat zetorrelarik, nahiz eta elkarrekin denbora gutxi bizi, beren ezkon-bizi-

tzako lehen urteez geroztik ez bezalako adiskidetasuna sentitu zuten beren artean. Ivan Ilitxek familiarekin berehalaxe alde egiteko asmoa zuen, baina bat-batean, Ivan Ilitx eta bere familiarekiko oso maitakor eta hurbil sentitu ziren ahizpak eta koinatuak behin eta berriz eskatu zielako, bakarrik alde egin behar izan zuen.

Ivan Ilitxek alde egin zuen, eta arrakastaren eta emaztearekin bat etortzearen ondorioa zen barne-aldarte alaiak (batak bestea indartzen zuen) denbora guztian irauten zion. Etxebizitza zoragarria aurkitu zuen, senarrak eta emazteak amets egiten zuten bezalakoa. Areto zabala, garaiak, antzinako erako gelak, despatxu handios eta erosoak, emaztea eta alabarentzako koartoak, semearentzako ikasgela, dena bereziki beraientzat pentsatua izan balitz bezala. Ivan Ilitx bera arduratu zen etxea antolatzeaz, berak hautatu zuen papera, erosi zituen altzariak, zaharrak batik bat, oso *comme il faut* estiloa sortzen dutenak, tapizeria eta dena hazi zen, hazi eta berak irudikaturiko ideal bihurtu zen. Erdia antolatu zuenean, antolaketak bere itxaropenak gaindituak zituen. Bazekien nolako estilo *comme*

il faut eta hauta izango zuen dena prest egotean. Lo egitean, aretoa nolakoa izango zuen irudikatzen zuen. Egongelari begiratzean, nahiz eta artean amaitu gabe egon, jadanik supazterra, pantaila, apalak eta aulkitxo barreiatu haiek, plater haiek, handiak eta txikiak, hormetan eta brontzeak, zein bere tokian egongo zirenak, ikusten zituen. Poza ematen zion pentsatzeak nola alaituko ziren Paxa eta Lisanka, gustu handikoak baitziren gauza hauetarako. Ez zuten halakorik espero. Bereziki gauza zaharrak, denari izaera oso noblea ematen ziotenak aurkitu eta merke erosteko aukera izan zuen. Beretarrei idatzitako gutunetan, nahita, dena zen baino okerrago jartzen zuen, gero txunditurik uzteko. Guzti honek hainbesteraino lanpetzen zuen, non kargu berriak, atsegineko gai batean, espero baino gutxiago betetzen zuen. Bileretan barreialdiak izaten zituen: gortinen gaineko erlaizak zuzenak ala bilduak egin beharko ote ziren. Hainbesteraino arduratzen zuten gauza hauek, non sarritan berak esku hartzen zuen altzaria jartzen edo gortinak esekitzen. Behin eskailerara igo zen ulertzen ez zion papereztatzaileari tapi-

zatzea nola nahi zuen aditzera emateko, baina behaztopatu eta erori egin zen, baina gizaseme sendo eta zalua izaki, oratu egin zion, leihosapailoaren kontra kolpe bat hartzea beste ondoriorik gabe. Mailatuak min eman zion baina laster pasatu zitzaion. Ivan Ilitx oso alai eta osasuntsu sentitzen zen denbora guzti honetan. Idatzi zuen: «Aldetik hamabost urte kendu ditudala sentitzen dut». Irailean amaitzeko asmoa zuen baina urriaren erdira arte luzatu zitzaion. Baina dena zoragarri zegoen: ez zuen berak bakarrik esaten hori, ikusten zuten guztiek zioten.

Funtsean, erabat aberatsak ez izan arren, aberatsen antzeko izan nahi duten pertsonen etxeetan gertatzen den gauza bera zen, eta horregatik elkarren antza izatea besterik ez dute lortzen: gortinoiak, ebanoak, break, alfonbrak eta brontzeak, tonu ilunak eta distiratsuak; klase jakin bateko pertsonak egiten dutena, klase jakin bateko pertsona guztien antzekoak izateko. Hartan hain zen antzekoa dena, non ezinezkoa zen arreta ez erakartzea; baina berak guzti hari oso berezia zeritzon. Familiakoei trenbidearen geltokian harrera egin eta argi biztuekin eta

prestaturik zegoen etxera eramatean, eta lekaioak gorbata zuriarekin lorez apainduko hargelako atea irekitzean, eta ondoren egongelara eta despatxura pasarazi eta atseginezko hasperenak egitean oso pozik sentitu zen, alde guztietara eraman zituen, gorespenak jasotzen eta gogobetetasunez dirdirka ari zuen. Arrats hartan, tea hartzeko orduan Praskovia Fiodorovnak, besteak beste, nola erori zen galdetu zionean, Ivan Ilitxek barre egin eta bizitasunez deskribatu zuen nola hegaz egin eta papereztatzailea ikaratu zuen.

— Ez naiz alferrik gimnasialaria. Beste batek mina hartuko zukeen, baina nik ukitutxo bat besterik ez nuen hartu hementxe; sakatzean min ematen dit, baina pasatzen ari zait; ubeldura bat baizik ez da.

Eta egoitza berrian bizitzen hasi ziren, zein角度an beti ongi samar bizitzeko eran jartzean, gela bat soilik falta izaten den, eta baliabide berriekin, nahiz eta, beti bezala, behar baino gutxixeago —bostehunen bat errublaren falta— izan. Oso ongi joan ziren gauzak. Lehen aldia bereziki ongi joan zen, artean dena antolatu

gabe eta zerbait egiteko zegoenean: erosi, eragin aldatu, txukundu. Senarra eta emaztearen artean ezadostasun batzuk bazeuden arren, biak hain zeuden gogobeteak eta hainbeste zegoen egiteko, non dena inolako gatazkarik gabe amaitzen zen. Ezer egiteko geratu ez zenean, apur bat gogaitzen hasi ziren, zerbaiten falta balute bezala, baina etorri ziren adiskide berriak, ohitura berriak eta bizitza bete egin zitzaien.

Ivan Ilitx, goiza epaitegian eman eta bazkalorduan itzultzen zen etxera, eta lehen aldian aldarte ona izan zuen, nahiz eta zerbait pairatu egoitzarengatik. (Zamauko, gortinoiko edozein mantxak, gortinetan eteten zen edozein sokak sumindu egiten zuen: hainbeste lan hartua zuen antolaketan, non edozein desegokierak min ematen zion.) Baina, oro har, Ivan Ilitxen bizitza, bere ustez, behar zuen bezala zihoan: arin, atsegin eta gisaz. Bederatzietan jaiki, kafea edan eta kazeta irakurtzen zuen, gero uniformeak jantzi eta Epaitegira joaten zen. Han jadanik prestatua izaten zuen lanaren uztarria, eta berehala men egiten zion. Eskalariak, kantzileriarako ofizioak, kantzileria bera, bilerak publikoak eta adminis-

traziokoak. Guzti honetan epaiketa-auzien joararen zuzentasunari kalte egiten dioten bizitza eta biguntasunarekin zerikusia duenari alde batera eragin beharra zegoen: ezin zuen inolako harremanik onartu jendearekin ofizial hutsak izan ezik, eta harremanetarako kausak ere ofiziala izan behar zuen eta harremanek berek ere ofizialak izan behar zuten soilik. Esate baterako, etortzen da norbait eta zerbait jakin nahi du. Ivan Ilitxek pertsona partikular bezala ezin du izan inolako harremanik pertsona horrekin; baina pertsona horrekiko harremana baldin eta paper menbredunean adierazteko bezalakoa baldin bazen, muga horien barruan Ivan Ilitxek, zinez, ahalegin guztiak egiten eta aldi berean adiskidetasunaren moduko giza harremanak ezartzen zituen, hots, kunplimenduzkoak. Harreman ofizialak amaitzean, amaitzen dira gainerako guztiak ere. Alderdi ofiziala bereizteko gaitasun hori, bere bizitzarekin ez nahastekoa, Ivan Ilitxek goren mailan zeukan, eta praktika luzea eta talentuarekin halako mailaraino landu zuen, non batzuetan bertutetsu baten gisara, aukera ematen zion bere buruari, txantxetan bezala,

harreman gizatiarrak eta ofizialak nahasteko. Aukera hau bere buruari ematea, behar zuenean alderdi ofiziala berezi eta gizatiarrari alhora eragiteko bere baitan nahikoa indar sentitzen zuelako baizik ez zen. Hori Ivan Ilitxengan erraza, atsegina eta gisakoa ez ezik, artezkoa ere bazen. Tarteetan erre, tea hartu, politikaz apur bat, arazo orokorrez apur bat, karteaz apur bat eta, batez ere, izendapenez hitz egiten zuen. Eta nekaturik, baina ezin hobeki bere partitura jo duen orkestrako lehen biolin bertutetsuaren sentimenduarekin etxera itzultzen zen. Etxean ama eta alaba norabait joanak edota norbaiti barrera egiten ibiltzen ziren. Semea gimnasioan izaten zen, irakasle bereziekin ikasgaiak prestatzen, eta ongi ikasten zuen gimnasioan irakasten ziotena. Dena ongi zihoan. Bazkalostean, gonbidaturik ez bazegoen, Ivan Ilitxek jendeak asko aipaturiko libururen bat irakurtzen zuen, eta arratsean bere arazoetan ari izaten zen, hau da, paperak irakurri, legeak kontsultatu, aitorpenak alderatu eta legepean ezartzen zituen. Hori ez zen ez gogaikarri, ez jostagarri. Binteian jokatzeko aukera zuenean gogaikarri gertatzen zitzaion;

baina bintik ez zegoenean, nolanahi ere hobe zen bakarrik edo emaztearekin eserita egotea baino. Ivan Ilitxen atseginak gizartean posizio garrantzizkoa zuten damak eta jaunak otordutxoetara gonbidatzea izaten zen eta beraiekin denbora-pasatzekoak egitea ere, zeinek izan behar baitzuten areto guztien antzeko aretoaren jabe zirenen ohizko denbora-pasatzekoen antzekoak.

Behin arrats batean dantza ere egin zuten. Ivan Ilitx pozik zegoen eta dena ongi atera zen, nahiz eta emaztearekin istilu bat sortu zitzaion tartak eta konpitak zirela-eta. Praskovia Fiodorovnak bazuen bere plana, baina Ivan Ilitxek behin eta berriz eskatu zuen dena gozotegi garesti batetik ekartzeko eta tarta asko erosarazi zituen, eta tartak soberan geratu eta gozotegiko faktura berrogeita bost errublotakoa izan zelako sortu zen istilua. Istilua handia eta higuin-garria izan zen, hainbestekoa, non Praskovia Fiodorovnak «inozoa, erretxina» deitu baitzion. Berak buruari heldu eta berotasunean bizialarguntzeaz ere hitz egin zuen. Baina arrats berean alaitu zen. Jaia ongi atera zen eta Ivan Ilitxek

Tufonova printzesarekin dantza egin zuen «Eramazu nire samina» izeneko elkartearen sortzeagatik sonatu bihurtu zenaren ahizparekin. Bizitza ofizialeko pozak nork bere burua maitatzearen pozak ziren; baina Ivan Ilitxen benetako pozak bintean jokatzekoaren pozak ziren. Aitortzen zuen, azkenaren buruan, nolabaiteko gertakari atseka-bezko baten ondoren, beste guztien aurretik argi egiten zuen poza jokalaria onekin esertzearena zela, isilik egoten zekiten jokalariekin bintean jokatzeko eta ezinbestez lau izan behar zuten (bost izanez gero higuigarria izaten zitzaion, nahiz eta berak oso pozik zegoela esan) eta joko azkar, serioa egin behar izaten zen (karta onak zetozenean) gero afaldu eta basokada bat ardo edateko. Eta bintaren ondoren, zertxobait irabazi zuenean (asko irabaztea ez zen gisakoa), Ivan Ilitx oso izpirituzko aldarte onean oheratzen zen.

Honela bizi ziren. Eratzen zuten gizarte-zirkuluak ezin hobeak zen eta jende garrantzizkoa eta gaztea joaten zitzaien.

Ezagupideen zirkuluari zegokionez, senarra, emaztea eta alaba erabat ados zeuden, eta ezer mintzatu gabe, etortzen zitzaizkien behe-maila-

ko ezagun eta ahaide mota guztiak aldentzen zituzten eta haietaz libratzen ziren, beren samurkeriez, hormetan plater japoniarrak zituen aretora haizatuz. Behe-mailako ahaide hauek laster utzi zioten etortzeari eta Golovindarre-nean gizartearen floria geratu zen. Mutil gazteek errondan zebilzkion Lisankari, eta Petrixtxev, Dmitri Ivanovitx Petrixtxeven semea eta ondasu-nen oinordeko bakarra, instrukzio-epailea, hala-ko eran hasi zen Lizari begia botatzen, non Ivan Ilitxek Praskovia Fiodorovnarekin hitz egin baitzuen horretaz, ea ez ote zen komeniko troikan ibiltzera eramatea edo ongintzazko emanaldiren bat ez ote zen antolatu beharko. Honela bizi ziren. Eta dena aldaketarik gabe zihoan, eta dena primeran zihoan.

IV

Denak osasuntsu zeuden. Ez zegoen esaterik Ivan Iltx osasuntsu ez zegoenik, noizean behin ahoan gustu estrainioa eta sabelaren ezkerraldean ondoeza sentitzen zuela aipatzeagatik.

Baina eragozpen horiek gehitu egin ziren eta artean min izatera iritsi ez baziren ere, saihe-tsean nekea eta barrenean aldarte txarra sortzen zizkioten. Barreneko aldarte txar hori Golovindarren familian zegoen bizitza arin eta gisakoaren atsegintasuna pixkanaka andeatzen hasi zen. Senar-emazteak gero eta sarriago haserretzen ziren, eta laster desagertu ziren arintasuna eta atsegintasuna, gisakotasunari nekez eusten ziotelarik. Eszenak gero eta maizagoak ziren. Berriro irlote batzuk bakarrik geratu ziren, eta gutxi gainera, zeinetan senar-emazteak leherketarik gabe bat etor zitezkeen.

Orain Praskovia Fiodorovnak zioen, eta ez arrazoirik gabe, senarra izaera makurrekoa zela. Gauzak bapikatzeko ohiturarekin beti izan zela izaera makurrekoa aitortzen zuen, eta bere onta-

sunari esker bakarrik jasan izan zituela hogeit urte haiek. Egia zen orain senarrarengatik sortzen zirela haserreak. Bere liskarrak beti bazkaltzeko orduan hasten zituen eta sarritan, zopa jaterakoan. Edo ohartzten zuen plateren batek mailatua zeukala, edo jatekoa ez zegoela behar bezala, edo semeak ukondoa mahaian jarri zuela, edo alabak halako orrazkera zeukala. Eta Praskovia Fiodorovnak zuen guztiaren errua. Praskovia Fiodorovna aurre egiten hasi zitzaion eta gauza gogorrak esaten, baina bi aldiz bazkaria hasterakoan hainbeste amorratu zen, non ulertu zuen gaixozko egoera, jakia hartzearen ondoriozkoa zela, eta eutsi egin zion bere buruari, ez zion aurre egin eta lehenbailehen jaten ahalegindu zen. Bere otzantasuna meritu handitzat zeukan Praskovia Fiodorovnak. Azkenean erabaki zuen senarrak aldarte higuingarria zeukala eta dohakabe bihurtu ziola bizitza eta bere buruaz errukitzen hasi zen. Eta zenbat eta bere buruaz errukituago, hainbat eta ezinikusi handiagoa zion senarrari. Hil zedin nahi izaten ere hasita zegoen, baina ezin zezakeen horrelakorik nahi izan, zeren soldatarik gabe geratuko baitza-

tekeen. Eta horrek bere kontrako amorrua areagotu egiten zion. Guztiz dohakabe sentitzen zen, hain zuzen ere heriotzak berak ere ezin zuelako salbatu eta amorratzen bazen ere disimulatu egiten zuen eta amorru ezkutuko horrek gehitu egiten zion amorrua.

Eszena baten ondoren, zeinean Ivan Iltx bereziki bidegabea izan baitzen, desenkusak aurkeztu eta oso suminkor sentitzen zela esan zuen, baina hori gaixotasunarengatik zela; emazteak esan zion gaixorik baldin bazegoen, sendatu egin behar zuela eta mediku ospetsu batengana joateko eskatu zion.

Joan egin zen. Dena espero zuenez gertatu zen; dena beti gertatzen den bezalakoa izan zen. Itxaronaldia, berak ere Epaitegitik hain ongi eza-gutzen zuen medikuaren seriotasun itxuratua, takadatxoak eta auskultazioak, erantzuten denbora apur bat eskatzen duten eta erantzun alfer-rak dituzten galderak, itxura esanguratsua, zeinak baitzirudien esan nahi zuela: «Jar zaitez gure eskuetan eta dena konponduko dugu, badakigu eta ez dugu zalantzarik dena nola konpondu, dena era berean egiten baita, nornahi dela ere».

Dena, zehatz-mehatz, Epaitegian egiten zen bezala zen. Berak Epaitegian akusatuekin jarduten zuen bezala, ziharduen mediku ospetsuak berarekin.

Medikuak zioen: «Honek eta honek esan nahi dute zure barruan hau eta hau daudela; baina hau halako eta halako ikerketak ez badute berresten, orduan uste izan beharko dugu halako eta halako duzula. Baldin eta halako eta halako uste izaten bada, orduan... eta abar. Ivan Ili-txentzat, ordea, galdera garrantzizko bakarra zegoen: egoera larrian zegoen ala ez? Baina medikuak ez zion jaramonik egiten galdera zentzugabe horri. Medikuaren ikuspuntutik, galdera hori hutsala zen eta ez zuen aintzakotzat hartzea merezi, zegoen gauza bakarra gertakortasunen kalkulua zen: giltzurrin flotakorra, kostuma kronikoa eta heste itsuko gaitza. Ez zegoen Ivan Ili-txen bizitzaren arazorik, baizik eta gatazka giltzurrin flotakorraren eta heste itsuaren artean zegoen. Eta gatazka hori, Ivan Ili-txen begietarako, era distiratsuan ebatzi zuen medikuak heste itsuaren alde, gernuaren analisiak froga berriak eman zitzakeelako salbuespena eginez eta

orduan arazoa berrikusi egin beharko zela esanez. Guzti hori, puntuz puntu, Ivan Ilitxek mila aldiz egiten zuen auzitaratuekin, era distiratsu berean. Halaber, era distiratsuan egin zuen laburpena medikuak eta garaikor, pozik ere bai, begiratu zion betaurrekoen gainetik auzitaratuari. Laburpen honetatik Ivan Ilitxek gaizki zegoela ateratu zuen ondorioztat, nahi zuena esaten zutela ere medikuak eta guztiek, baina gaizki zegoela. Ondorio honek kolpe mingarria eman zion Ivan Ilitxi, bere buruarenganako errukizko sentimendu handi bat eta halako arazo garrantzizkoaren aurrean hain axolagabe ageri zen medikua-renganako amorru handia sortu zitzaion.

Baina ez zuen ezer esan, aitzitik, zutitu, ezarri dirua mahaiaren gainean eta hasperen eginez esan zuen:

— Guk, gaixook, seguru aski, galdera zentzugabeak egiten dizkizuegu sarritan —esan zuen—. Oro har, gaixotasun arriskutsua da ala ez?.

Medikuak begiratu zorrotza egin zion betaurrekoetan zehar begi bakarraz, esan nahiz beza-la: «Auzitaratu hori, ez baldin baduzu geratu nahi egiten zaizkizun galderen muga-barruan,

beharturik aurkituko naiz epaiketa-aretotik urrunaraztera».

— Dagoeneko adierazia dizut zer jotzen dudan beharrezko eta ezinbesteko —esan zion medikuak—. Gainerakoa analisiak erakutsiko du. Eta medikuak gur egin zion.

Ivan Ilitx astiro irten zen, abaildurik trineoan eseri eta etxera joan zen. Bide guztian medikuak esandakoari birak ematen zizkion buruan hitz zientifiko nahasi eta ilun haiek guztiak hizkuntza soilera bihurtzeko eta beraietan «Gaizki, oso gaizki nago, ala oraindik ez nago?» galderaren erantzuna irakurtzeko ahaleginak eginez. Eta bazeritzon, medikuak esandako guztiak oso gaizki zegoela adierazten zuela. Kaleetan dena triste zegoela iruditu zitzaion Ivan Ilitxi. Kotxezainak triste zeuden, etxeak triste, oinezkoak, dendak triste. Oinaze hark, oinaze sor, lauso hark, une batez ere atertzen ez zenak, bazirudien, medikuaren hitz ilunen ondoren, beste esanahi bat, askoz serioagoa hartzen zuela. Ivan Ilitxek sentimendu berri mingarri batekin kasu egiten zion orain.

Ettxera iritsi eta emazteari kontatzen hasi zitzaion. Emazteak entzuten zion, baina kontae-raren erdian alaba sartu zen kapelarekin: amare-kin irteteko hitzemanen zegoen. Kostata asperga-rrikeria hura entzuten hasi zen, baina ez zuen luzaroan iraun, eta amak ere ez zion azkenerai-no entzun.

— Tira, benetan pozten naiz —esan zuen—; orain, begira, dagokion garaian sendagaia hartu behar duzu. Emadazu errezeta, bidaliko dut Gerasim farmaziara. —Eta janztera joan zen.

Ivan Ilitxek arnasari eutsi zion emaztea gelan zegoen bitartean, eta sakon hartu zuen arnasa, hura irtetean.

— Zer egingo diogu ba? —esan zuen—. Behar bada, oraindik ez da ezer...

Hasi zen sendagaiak hartzen, medikuaren aginduak betetzen, zeinak gernuaren analisiaren ondoren aldatu baitziren. Baina oraingoan, ana-lisi honetan eta ondoren egin behar izan zenean, nahaste apur bat sortzea gertatu zen. Medikua-rengana berarengana iristea ezina zen, eta ez zuela medikuak esandakoa egiten gertatzen

zen. Edo ahaztu egin zuela, edo huts egiten zuela, edo zerbait ezkututzen ziola.

Baina Ivan Ilitxek zehatz-mehatz betetzen zituen aginduak eta hasieran kontsolamendua aurkitzen zuen agindu horiek betetzen.

Medikuari bisita egin zionetik Ivan Ilitxen zereginik nagusiena medikuaren aginduak zehatz-mehatz betetzea izan zen higieneari eta sendagaiak hartzeari zegokionez, eta oinazeari eta organismoaren jarduera guztiei kasu egitea. Jendearen gaixotasunak eta jendearen osasuna bihurtu zen Ivan Ilitxen interesik nagusiena. Bere aurrean gaixoez, hildakoez, osatuez hitz egiten zutenean, batez ere berak zuenaren antzeko gaixotasunaz, bere asaldura estaltzeko ahalegine-tan, adi jarri, galdetu eta bere gaixotasunerako ondorioak ateratzen zituen.

Oinazea ez zen gutxitzen; baina Ivan Ilitxek ahaleginak egiten zituen bere buruari hobeki zegoela pentsarazteko. Eta bere burua engainatzea lortzen zuen ezerk asaldatzen ez zuenean. Baina emaztearekin nahigaberen bat izan orduko, ezbehar bat Epaitegian, karta txarrak bintean, bere gaixotasunaren indar guztia sentitzen

zuen bat-batean; ez behar guzti horiek lehen
oker egina zuzenduko zuelakoan, garaitia,
gurenda lortuko zuelakoan jasaten zituen. Orain,
berriz, edozein ezbeharrek abailtzen eta etsipe-
nean murgiltzen zuen. Bere buruari esaten zion:
«Suspertzen ari nintzenean eta sendagaia bere
eragina izaten hasi denean halako zorigaitz
madarikatu hura edo bestelako atsekabe hori
sortu da...» Eta sumindu egiten zen zorigaitzaren
kontra edo atsekabea sortu eta hainbeste sufria-
razten ziotenen kontra; eta amorru horrek kalte
handia egiten ziola sentitzen bazuen ere, ezin
zuen gainditu. Bazirudien garbi eduki behar
zuela inguruabarren eta pertsonen kontrako
amorratze horrek areagotu egiten ziotela gaixo-
tasuna eta horregatik ez ziela jaramonik egin
behar gertakari higuingarriei; berak zeharo alde-
rantzizko arrazoiketa zerabilen: patxada behar
zuela esaten zuen, patxada hori eragozten zuen
guztia zelatatzen zuen eta eragozpen txikiena-
ren aurrean sumindu egiten zen. Egoera okerra-
gotu egiten zion medikuntza-liburuak irakurri eta
medikuei aholkua eskatzeak. Gaizkitzea hain zen
atergabea, non bere burua ere ezin bait zuen

engainatu, egun bat bestearekin alderatuz: alde oso txikia izaten zen. Baina medikuei aholkua eskatzen zienean, orduan bazeritzon okerrago zihoala eta oso bizkor gainera. Guztiarekin ere, taigabe eskatzen zien aholkua medikuei.

Hil hartan beste sonatu batengana jo zuen: beste sonatu hark ia aurrekoak esandako gauza bera esan zion, nahiz eta galderak aldatu. Eta sonatu horrengandik hartutako aholkuak Ivan Iltxen zalantzak eta beldurra areagotzea besterik ez zuen lortu. Adiskide baten adiskideak —oso mediku ona bera— erabat bestelako gaixotasuna iragarri zion, eta berriz osatuko zela agindu zion arren, bere galdera eta aieruekin oraindik gehiago nahastu zuen Ivan Iltx eta zalantzak areagotu zizkion. Homeopata batek bestelako gaixotasun bat iragarri eta sendagai berri bat eman zion, eta Ivan Iltxek, besteen bizkar, aste-betez hartu zuen. Baina astearen buruan, hobe-kuntzarik ez sentitzean, eta aurreko tratamenduetan eta honetan ere itxaropena galdurik, oraindik abaildura handiagoaren menpe erori zen. Behin dama ezagun batek ikonoen bidezko sendakuntzaz hitz egin zion. Ivan Iltxek bere

burua behartu egin zuen arretaz entzutera eta gertakariaren errealitatea sinestera. Horrek ikaratu egin zuen. «Ba ote liteke honenbestera burua ahuldurik edukitzea? —esan zuen bere golkorako. —Lelokeriak! Dena tentelkeria da, ez dut begitazioen menpean erori behar, mediku bat hautatu eta berak agindutakoa zorrotz bete behar dut. Hala egingo dut. Orain kitto dena. Ez dut pentsatuko eta udara arte agindutakoa zorrotz beteko dut. Eta orduan ikusiko dugu. Orain amaitu dira zalantza-malantza hauek!...» Erraza zen esaten, baina ezina betetzen. Saihetseko oinazeak traba egiten zion, areagotzen ari zitzaiola ematen zuen, atergabe ari zitzaion, ahoko gustua gero eta estrainioagoa zitzaion, bazirudien arnasa nazkagarria zeriola ahotik, eta jateko gogoa eta indarrak ahultzen ari zitzaizkion. Ezinezkoa zitzaion bere burua engainatzea: zerbait ikaragarria, berria eta garrantzizkoa, Ivan Ilitxi bizitzan inoiz gertatu ez bezalakoa ari zitzaion gertatzen. Eta berak bakarrik zekien hori; inguruko guztiek ez zioten ulertzen edo ez zioten ulertu nahi, eta uste zuten gauza guztiek lehen bezala jarraitzen zutela. Horretxek atseka-

betzen zuen Ivan Iltx beste ezerk baino gehiago. Etxekoek —bisita-aroa betean zeuden emazteak eta alabak batik bat—, ez ziotela ezer ulertzen ikusten zuen: haserretu egiten ziren hain muzin eta eskale zegoelako, berak horren errua balu bezala. Eta ezkutatzeko ahaleginak egiten zituzten arren, haientzat traba zela ikusten zuen berak, eta emazteak jarrera jakin bat hartua zuela bere gaixotasunarekiko eta hari eusten ziola Ivan Iltxek esaten edo egiten zuena gorabehera. Jarrera hori honelakoa zen:

— Badakizue —esaten zien adiskideei—; Ivan Iltxek ezin ditu pertsona normalak bezala medikuaren aginduak zehatz-mehatz bete. Gaur tantak hartu, zilegi zaiona jan eta goiz oheratzen da; bihar berriz, nik esan ezean, ahaztu egiten zaio hartzea, gaizkata jaten du (ez zaio zilegi) eta bintean jokatzeko ordu bata arte.

— Noiz izan da hori? —esaten zuen Ivan Iltxek sumindurik—. Behin bakarrik, Piotr Ivanovitxen etxean.

— Eta atzo, Xebekekin.

— Berdin dio, minak ez zidan lo egiten uzten...

— Berdin dio zergatik izan den edo ez den izan, horrela ez zara inoiz osatuko eta alamenaren emango diguzu.

Praskovia Fiodorovnak senarraren gaixotasunaz pentsatzen zuena kanpokoei eta bere buruari esaten ziona bera zen: erruduna bera zela eta gaixotasun guztia emazteari egiten zion beste higuingarrikeria bat baizik ez zela. Ivan Ilitxek sentitzen zuen hori nahi gabe gertatzen zitzaion zer bait zela, baina hala ere ez zen lasaiago aurkitzen.

Epaitegian Ivan Ilitxek nabaritzen edo pentsatzen zuen berekiko jarrera estrainio bat zegokela: bazeritzon laster bere postua uztera zihoan bati bezala begiratzen ziotela; bat-batean, lagunak adiskidekor txantxetan hasi zitzaizkion bere begitazioez, bere barruan zeraman gauza izugarri eta lazgarri, entzungabeko hura, atergabe zurrupatzen zuen eta jarki ezinik herrestan zeraman hura, txantxetarako gairik atseginena bailitzan. Schwartzek, bere jostaritasun, bizitasun eta *comme il faut* jarrerarekin, hamar urte lehenago bere burua gogorarazten zionak, bereziki amorratzen zuen Ivan Ilitx.

Etortzen ziren adiskideak karta-partida bat jokatzera, esertzen ziren, banatzen zituzten kartak, pilatzen zituzten bubniak, zazpikoak. Kideak esaten zuen: «Triunforik gabe?»; eta bi bubnirekin laguntzen zion. Oraindik ba al zegoan? Pozik, kementsu egon beharra zegoen-kapotea. Eta supituki Ivan Ilitxek oinaze zorrotz hura, ahoko gustu hura sentitzen zuen, eta zentzugabea zeritzon guzti harekin inola ere alaitzeari.

Mikhail Mikhailovitx, kideari begiratzen zion, nola jotzen zuen mahaia esku odolbiziz eta adeitsuki eta onbera, igozak biltzeari uko egin eta Ivan Ilitxi hurbiltzen zizkion kartak, haiek jasotzeko atsegina emateko, bere burua behartu gabe, eskua gehiegi luzatu gabe.

Horrek uste du eskua luzatzeko ere ahulegi nagoela» —pentsatzen zuen Ivan Ilitxek, triunfoa ahaztuz eta bere lagunaren igoza estaldu eta ondorioz galduz, eta txarrena Mikhail Mikhailovitxek nola sufritzen zuen eta berari ez zitzaiola axola ikustea zen. Eta gogorra zitzaion zergatik ez zion axola pantsatzea.

Guztiek ikusten zuten nekagarri zitzaiola eta esaten zioten: «Nekaturik bahago utz zezakea-

gu. Atsedena har ezak». Atsedena hartu? Ez, ez zuen nekerik sentitzen; amaitu egingo zuten partida. Guztiak mudurri eta hitzurri zeuden. Ivan Ilitx ohartzen zen berea zuela mudurritasuna eta ezin zuela uxatu. Afaldu eta alde egiten zuten, eta Ivan Ilitx bizitza pozoitua zeukan kontzientziarekin gelditzen zen eta besteen bizitza ere pozoitzen zuelakoarekin, eta hori gero eta gehiago bere izatean sartzen ari zitzaion ustearekin.

Eta kontzientzia horrekin, min fisikoa eta izuarekin ere oheratu behar izaten zuen eta sarritan ez zuen lo egiten, gauaren parterik handiengan, oinazez. Eta goizean berriro jaiki, jantzi, Epaitegira joan, hitz egin, idatzi egin behar izaten zuen, eta hori egin ezean, etxean egon behar izaten zuen hogeita lau orduetan, zeinetariko bakoitza tormentu baitzitzaion. Eta hondamendiaren ertzean bizitzea bakarrik egin behar zuen, ulertu eta errukituko zitzaion inor eduki gabe.

V

Honela igaro ziren hilabete bat eta bi. Urte Berriaren bezperan koinatua hirira etorri eta etxean geratu zitzaien. Ivan Ilitx Epaitegian zen. Praskovia Fiodorovna erosketak egitera irtena zen. Despatxura sartzean, koinatuarekin, bere kasa maletakoak txukuntzen ari zen odolbizi osasuntsuarekin topo egin zuen. Ivan Ilitxen oinotsak entzutean buru jaso eta segundo batez isilik begiratu zion. Begirada hark dena agerian jarri zion Ivan Ilitxi. Koinatuak ahoa ireki zuen deiadar egiteko baina eutsi egin zion. Mugimendu hark dena berretsi zion.

— Aldatu egin al naiz?

— Bai... aldea nabari zaizu.

Eta nahiz eta Ivan Ilitxek behin eta berriz ekin zion koinatuaren atzetik bere kanpoko itxuraz hitz egiteko, hark isilik jarraitu zuen. Iritsi zen Praskovia Fiodorovna eta koinatua hurbildu egin zitzaion. Ivan Ilitxek giltzaz atea itxi eta ispiluari begiratu zion, aurrez aurre eta gero soslaitara. Emaztearekin baterako argazki bat hartu eta

ispiluan ageri zenarekin erkatu zuen. Aldea izugarria zen. Gero besoak ukondoraino agerian jarri, begiratu, mahukak beheratu eta otomanan eseri zen, gaua baino ilunago jarririk.

«Ezina da, ezina da», esan zion bere buruari, zutitu, hurbildu mahaira, hartu zehaztapidetza bat, ekin zion irakurtzeari baina ezin izan zuen. Ireki atea eta aretora joan zen. Egongelako atea erdi irekita zegoen. Oin-puntetan hurbildu eta entzuten jarri zen.

— Ez, ahoberokeria bat esaten ari zara —esaten zion Praskovia Fiodorovnak.

— Ahoberokeria? Zuk ez duzu ikusten baina hildako bat da, begiraiezu begiei. Ez dute argirik. Baina zer dauka?

— Inork ez daki. Nikolaievek (beste medikuak) zerbait esan du, baina ez dakit. Lextxetitzik (mediku sonatuak) kontrakoa esan du...

Ivan Ilitx aldendu, bere gelara joan, etzan eta pentsatzen jarri zen: «Giltzurrina, giltzurrin flota-korra». Gogora ekarri zuen medikuek esandakoa nola jaulki zen eta nola flotatzan zuen. Irudimenaren ahalegin batez giltzurrin hori harrapatu, geldiarazi eta tinkatzen ahalegindu zen; oso

gutxi falta zitzaiola zeritzon. «Ez, berriro Piotr Ivanovitxengana joango naiz» (Adiskide mediku bat zeukan adiskidea zuen). Deitu, zalgurdia prestatzeko eskatu eta irteteko prest jarri zen.

— Nora zoaz, jean? —galdetu zion emazteak aurpegiera bereziki triste eta ohi ez bezain on batekin.

Ohi ez bezalako ontasun horrek sumindu egin zuen. Mudurri begiratu zion.

— Piotr Ivanovitxen etxera joan beharrean nago.

Adiskide mediku bat zeukan adiskidearenera joan zen. Bertan medikua aurkitu zuen. Berarekin hizketaldi luzea izan zuen.

Gertatzen zitzaionaren zertzelada anatomiko eta fisiologikoak, medikuaren iritzian, aztertu ondoren, dena ulertu zuen.

Zeratxo bat, zeratxo txiki bat zeukan heste itsuan. Baina konpontzeko modukoa zen. Organ baten energia indartuz gero, bestearena ahulduz gero, berrurupaketa bat gertatuko zen eta dena konponduko zen. Bazkarira berandu samar iritsi zen. Alai jan eta berriketan egin zuen, baina luzaroan ezin izan zen bere zereginetara itzuli.

Azkenean joan despatxura eta lanerako eseri zen. Zehaztapidetzak irakurri, lan egiten zuen baina bere baitan barne-arazo larri alboratu bat zeukan kontzientziak, zeinaz amaitutakoan arduratuko baitzen, ez zion alde egiten. Zehaztapidetzak amaitu zituenean, gogoratu zuen barne-arazoa heste itsuan pentsatzea zela. Baina ez zen hartan murgildu eta egongelara joan zen tea hartzera. Gonbidatuak zeuden, pia-noa jo eta kantatzen ari ziren; instrukzio-epailea, beren alabaren senargaitzat nahi zutena bertan zegoen. Ivan Ilitxek arratsa, Praskovia Fiodorov-naren arabera, ohi baino alaiago pasatu zuen, baina une batez ere ez zuen ahaztu pentsamendu larri alboratuak zeuzkala heste itsuari buruz. Hamaiketan alde egin eta bere gelara joan zen. Gaixotasuna hasi zitzaionetik bakarrik lo egiten zuen, despatxuaren ondoko gelatxo batean. Bertara joan, arropak erantzi eta Zolaren eleberri bat hartu zuen, baina irakurri ordeztu pentsatzeari ekin zion. Irudimenean bere heste itsuaren konponketa desiratua gertatzen zitzaion. Zerbait berrurupatu, kanporatu eta inarkun zuzena lehengoratu zen. «Bai, hala da, —esan zion bere

buruari—. Naturari laguntzeaz aski da». Gogoratu zuen sendagaia, agendu, hartu eta aratinik etzan eta adi egon zitzaion sendagaiaren eragin ongileari eta gaitza deuseztatzeko erari. «Garai jakinetan hartu eta eragin kaltegarrietatik ihes egiteaz aski da; orain zerbait hobeto sentitzen naiz, askoz hobeto». Saihetsa haztatzen hasi zen, baina ez zuen minik hartzen. «Bai, ez dut sentitzen, egia da, askoz hobeto nago». Argia itzali eta saihetsaren gainean etzan zen... «Heste itsua konpontzen, bere burua berrurru-patzen ari da.» Supituki lehengo oinaze ezagun, sor, mintzurria, atergabe, isil, serio. Ahoan berriz ere nazka ezaguna. Bihotza uzkuritu egin zitzaion, burua lausotu. «Jainko maitea! Jainko maitea! —esaten zuen—. Berriz ere bai, berriz ere bai, eta hau ez da inoiz amaituko». Eta supituki gauza zeharo beste maila batean agertu zitzaion. «Heste itsua, giltzurrina! —esan zion bere buruari—. Gauza ez dago heste itsuan, ez giltzurrinean, bizitzan eta... heriotzan baizik. Bai. Bizitza hor zegoen eta orain badoa, badoa eta ezin diot eutsi. Bai. Zergatik engainatu neure burua? Agian ez al dago guztientzat agerian,

niretzat izan ezik, hiltzen nagoela eta auzia aste, egun kontua dela oraintxe bertan hil naitekeela? Lehen argia zegoen, orain ilunpea. Hemen nengo, eta orain hara noa! Nora?» Hotzak menperatu zuen, arnasa gelditu egin zitzaion. Bihotza-ren taupadak soilik entzuten zituen.

«Ez naizenean, zer gertatuko ote zait? Ez da ezer gertatuko. Non izango naiz, ez naizenean? Heriotza agian? Ez, ez dut nahi». Salto batez zutitu, argia piztu nahi izan zuen, esku dardara-tiez bilatu zuen, kandela lurrera bota zuen kanderailu eta guzti, eta berriro atzera erori zen burkoaren gainera. «Zertako? Berdin dio —esan zuen bere baitan, begi irekiez ilunpearri begira—. Bai, heriotza. Eta horietako inork ez daki eta ez du jakin nahi, eta dira errukitzen. Olgetan ari dira. (Urrunean, atetik, mintzoak eta ritornelloak entzuten ziren.) Berdin zaie, baina horiek ere hilko dira. Inozoak. Ni lehenago baina horiek ondoren; horiei ere etorriko zaie txanda. Eta jostatzen ari dira. Kaikuak! Suminak ito egiten zuen». Ondoeza jasanezin mingarria sortu zitzaion. Ezinezkoa zen guztiak beti beldur izugarri horretara kondenatuak egotea. Jaiki egin zen.

«Bada bestelako zerbait: lasaitu beharrean nago, dena hasieratik birpentsatu beharrean nago.» Eta birpentsatzen hasi zen. Bai, gaixotasunaren hasieran. Kolpe bat hartu nuen saihe-tsean, baina denak berdin jarraitu zuen, orduan eta biharamunean; min piska bat sentitu nuen, gero gehiago, gero medikua, gero abaildura, larridura, eta berriz ere medikuak; eta ni gero eta hurbilago amildegitik. Indarra gutxiago. Hurbilago eta hurbilago. Eta orain ertzean nago, ez daukat argirik begietan. Heriotza da eta ni hes-tean pentsatzen. Hestea nola konpondu pentsa-tzen ari naiz eta heriotza da. Heriotza ote da gero?«Berriro ere izuak mendean hartu zuen. Arnasestuka makurtu, pospoloen bila hasi eta ukondoaz mahaitxoari bultza egin zion. Nekarazi eta mina ematen zion, sumindu egin zen haren kontra, indar gehiagorekin bultza egin zion herraz eta bota egin zuen mahaitxoa. Etsita, lehiatsu, aratinik erori zen, une hartan bertan heriotzari itxaronez.

Gonbidatuak elkarri adio esaten ari ziren une hartan. Praskovia Fiodorovnak kanpora lagundu zituen. Entzun zuen erorikoa eta irten egin zen.

— Zer duzu?

— Ezer ez. Nahi gabe bota dut.

Emazteak irten eta kandela bat ekarri zuen. Ivan Ilitx etzanda zegoen, arnasa nekez eta bizkor hartuz, versta bat lasterka egin duena bezala, begi josiez emazteari begira.

— Zer duzu, jean?

— Ezer... ez. Bota ...egin... dut...

«Zertarako ezer esan. Horrek ez du ulertuko»
—pentsatu zuen.

Izan ere, ez zuen ulertu. Hartu kandela, piztu eta berehalakoan irten zen: gonbidatuei agur esan beharrean zegoen. Itzuli zenean aratinik aurkitu zuen, gora begira.

— Okerrago al zaude?

— Bai.

Emaztea buruari eragin eta aulkian eseri zen.

— Ba al dakizu, jean, nik uste, Lextxetitzki etxera gonbidatu beharko genukeela.

Horrek esan nahi du mediku sonatuari dei egitea eta dirurik ez murriztea. Ivan Ilitxek barre zitala egin eta ezetz esan zuen. Praskovia Fiodorovnak eserita jarraitu zuen, hurbildu eta musu eman zion bekokian.

Ivan Ilitxek arimako indar guztiez gorrotatzen zuen musu ematen zion une horretan, eta ahalegina egin behar izan zuen ez errefusatzeko.

— Agur. Jainkoak emango dizu loa.

— Bai.

VI

Ivan Ilitxek hiltzen zekusan bere burua eta etengabeko etsipenean zegoen.

Ivan Ilitxek bazekien arimaren barrenean hiltzera zihoala, baina horretara ohitu ezik, besterik gabe, ez zuen ulertzen, inola ere ezin zuen ulertu.

Kizeverteren logikan ikasia zuen silogismo-adibideari: «Kaio gizakia da, gizakiak hilkorrak dira, beraz Kaio hilkorra da», bere bizitza osoan zuzen iritzi izan zion Kaiorekiko, baina inondik ere ez bere buruarekiko. Kaio gizaki orokorraren kasuan, hori erabat zuzena zen; baina bera ez zen Kaio ezta gizaki orokorra ere, baizik eta bera erabat, erabat berezia zen beste izaki guztietatik; bera Vaña izan zen ama, aita, Mitia eta Volo-diarekin, jostailuekin, kotxezainarekin, inudeekin, gero Katenkarekin, haurtzaroko, nerabezaroko, gaztaroko alaitasun, berotasun, samin guztiekin. Agian Kaiok izan al zuen Vañak hainbeste maite zuen larruzko pilotaren usain hura? Agian Kaiok musu eman al zion hala amaren eskuari

eta agian Kaiorentzat zurruburru egin ote zuten hala amaren zetazko soinekoko izurrek? Agian sortu ote zuen zarramaltzarik Zuzenbide Eskolan pastel batzuk zirela-eta? Agian Kaio bera bezala maitemindurik egon al zen? Agian Kaiok gidatu al zezakeen bilerarik berak bezala?

«Kaio hilkorra zen; eta bidezkoa zitzaion hiltzea, baina nirekin, Vañarekin, Ivan Ilitxekin, neure sentimendu, pentsamendu guztiekin gauza besterik da. Eta ezin liteke ni hil behar izatea. Hori izugarriegia litzateke».

Hala sentitzen zuen.

«Baldin eta Kaiok bezala hil beharko banu, jakingo nuke, barne-mintzo batek esango lidake, baina ez zait horrelakorik gertatu; nik eta nire adiskide guztiek ulertzen genuen honek ez zuela Kaiorenarekin inolako zerikusirik. Eta orain hara! —esaten zion bere buruari—. Ezina da. Ezina da, baina bada. Nola liteke? Nola ulertu hori?»

Ezin zuen ulertu eta ahaleginak egiten zituen pentsamendu hori uxatzen faltsua, erratua eta gaixozkoa bailitzan, eta beste pentsamendu zuzen, osasungarri batzuez ordezkatzuz. Baina pentsamendu hori ez zen pentsamendu soila,

baizik eta errealtate baten gisakoa, berriro etorri eta aurrean jartzen zitzaiona.

Eta berak txandaka pentsamendu horien ordeztuak beste pentsamendu batzuei dei egiten zien, berorietan bermea aurkituko zuen itxaropenean. Pentsamenduaren lehengo joairara itzultzen ahalegintzen zen, zeinek lehenago heriotzari buruzko pentsamendua trabatzen zuten. Baina —gauza bitxia— lehen heriotzaren kontzientzia trabatu, estali eta deuseztatzen zuen guztiak, orain ezin zuen ondorio hori eragin. Azkeneko denboraren parte handia Ivan Iltxek heriotza trabatzen zion sentimenduaren joaira berrezartzeko ahaleginetan emana zuen. Hala esaten zion bere buruari: «Neure karguari lotuko natzaio, horretarako bizi bainaiz». Eta Epaitegira joaten zen, bere baitatik zalantza guztiak uxatuz, lagunekin hitz egiten zuen eta, bere ohitura zaharraren arabera, eseri egiten zen begirada galduaz jendeari barreiatuki begira eta esku argalduak haritzezko besaulkian bermatuz, eta ohi bezala, makurtzen zen lagun batengana, hartzen zuen zehaztapidetza, aritzen zen txutxuputxuka eta gero, supituki begirada jaso eta

zuzen jarritz, hitz ezagunak ebaki eta hasiera ematen zion auziari. Baina supituki, jardunaren erdian, saihetseko oinazeak, auziaren joairari inolako arretarik egin ezinik, *bere* auzi pareki-deari ematen zion hasiera. Ivan Ilitx saiatzen zen bere baitatik pentsamendu hura uxatzen, baina hark jarraitu egiten zuen, eta zera *hura* etortzen zitzaion, aurrean gelditu eta begiratu egiten zion: Ivan Ilitx zurtu egiten zen, begietatik alde egiten zion argiak eta berriro bere buruari galdezka ekiten zion: «Hori bakarrik ote da egia?» Eta lagun eta menpekoek harrimenez eta saminez ikusten zuten, bera bezalako epaile distiratsu eta zorrotzak hutsak eta errakuntzak egiten zituela. Inarrosten zuen bere burua, ahalegintzen zen baretzen eta nola hala eramaten zuen azkeneraino bilera eta itzultzen zen etxera epaiketa-lanak lehen bezala estali nahi zuena estaltzen lagundu ezin zion kontzientzia tristearekin: epaiketa-lanak hartatik libratu ezin zuelakoarekin. Eta okerrena zen hark ez zuela nahi zerbait egin zezan, baizik eta begira ziezaion bakarrik, aurrez aurre begietara, begira ziezaion, ezer egin gabe, ezin esanezko eran sufrituz.

Eta egoera honetatik bere burua salbatuz, Ivan Ilitxek kontsolamendua bilatzen zuen, beste pantaila batzuk, eta beste pantaila horiek agertzen ziren eta denbora laburrez salbatzen zuten nonbait, baina berehalakoan berriz ere deuseztatu baino areago zeharrargitu egiten ziren, zera hura guztia igaro eta ezerk traba egingo ez balio bezala.

Azken denboraldi hartan, berak dekoraturiko egongelan sartzean, (irrigarri eta samingarria zen hartan pentsatzea), berak bizia sakrifikatu zion egongela hartan, zeren ondotxo baitzekien bertan hartu zuen kolpearekin hasi zitzaiola gai-xotasuna, sartzean, adibidez, mahai bernizatuan harramazkada bat ikusten zuen, zerbaitez alde-
ren alde egina. Bilatzen zuen kausa eta ertzetik okertua zegoen albumaren brontzezko garnizioan aurkitzen zuen. Hartzen zuen album kutuna, berak maitasunez osatua, eta alabaren eta bere adiskideen zabarkeriaz kexatzen zen: zerbait urratua zegoen, argazkiak nahasturik aurkitzen zituen. Lehia handiz dena txukundu eta garnizioaren ertza zuzentzen zuen berriro.

Gero bururatzan zitzaion albumaren *établissement* hori beste zokoren batera aldatzea komeniko zela, loreen artera. Dei egiten zion lekaioari: alaba edo emaztea agertzen zitzaizkion laguntzera; ez ziren ados jartzen, elkarri kontra egiten zioten, bera eztabaidan hasten zen eta haserretu egiten zen; baina horrela hobeto, zeren ez baitzuen gogoratzen, ez bait zuen agerian edukitzen.

Baina emazteak, bera gauzak egiten hastean, esaten zion: «Utziozu, zerbitzariak egingo dute, berriz ere mina hartuko duzu». eta supituki zera hura berriz ere pantailaz bestaldetik agertzen zen, ikusi egiten zuen zera hura. Une batez agertzen zen zera hura; Ivan Ilitxek espero zuen ezkutatuko zela, baina ohartu gabe saihestari adi jartzen zitzaion: denak berdin jarraitzen zuen, betiko oinaze sorra, eta ezin zuen jadanik ahaztu, eta zera hark lore artetik begiratzen zion. Zertako hori dena?

«Egia ote da, hemen, gortina honetan, gaztelu baten kontra bezala, bizia galdu nuela? Ba ote? Bai izugarria eta bai irrigarria! Ezina da! Ezina da, baina bada».

Joan despatxura, etzan eta berriro bakarrean
geratzen zen «zera» harekin. Bekoz beko «zera»
harekin, berarekin egitekorik gabe. Begiratu eta
hotza sentitzea besterik gabe.

VII

Ivan Ilitxen gaixotasuneko hirugarren hilean nola gertatu zen hura, ezin zitekeen esan, zeren urratsez urrats, ezarian gertatu baitzen, baina emazteak, eta alabak, eta semeak, eta zerbitzariak, eta adiskideak, eta medikuek, eta areago oraindik, berak ere bazekiena gertatu zen: besteak berarekiko zuten interes guztia, azkenean, postua noiz utziko ote zuen jakitea zela, noiz libratuko zituen bizidunak bere presentziak sortzen zizkien eragozpenetatik, eta noiz libratuko ote zuen bere burua sufrimenduetatik.

Gero eta gutxiago lo egiten zuen; opioa ematen zioten eta morfina ziztatzen hasi zitzaizkion. Baina horrek ez zuen arintzen. Lozorroan sartzean sentitzen zuen larridura sorrak hasiera batean zerbait berriak bezala arintzen zuen, baina gero oinaze agerikoa bezain edo are mingarriagoa bihurtzen zitzaion.

Medikuen aginduz jaki bereziak prestatzen zizkioten, baina jaki horiek gero eta zozoago eta nazkagarriago gertatzen zitzaizkion.

Bere beharrianetarako adrazu berezi bat ere egin zioten, eta aldi oro suplizio bihurtzen zitzaion egintza hori. Zikintasunaren, desegokieraren eta kiratsarengatiko suplizioa, beste pertsona batek horretan lagundu behar zion kontzientziarengatikoa.

Baina arazo higuingarriena den horretan, Ivan Ilitxek aurkitu zuen kontsolamendurik. Gerasim morroi baserritarrak laguntzen zion beti.

Gerasim garbia, guria, kaleko jakiez gizenduriko baserritar gaztea zen. Beti alai eta aldarte onean egoten zen. Hasiera batean gizonaren itxura beti garbiak, errusiar erara jantziak, kezkarazi egiten zuen Ivan Ilitx, hain egiteko higuingarria zeukalako.

Behin batean, kanetatik jaiki eta frakak goratzeko indarrik ez zuela, besaulki biguinean erori zen eta izuturik geratu zitzaien bere izter biluzi eta indargabeei, gihar erabat markatuekikoei, begira.

Sartu zen Gerasim bere bota sendoekin, inguruan betun-usain eta negu-eguratsaren freskura atsegina zerizkiola, urrats sendo eta arine-

kin, perkalezko amantal garbia eta satenezko alkandora garbiarekin, beso sendo eta indartsuetan jasoriko mahukekin, eta Ivan Ilitxi begiratu gabe —agerian zegoenez bere buruari eutsi egiten ziola aurpegian nabari zitzaion bizi-pozaz gaixoa ez iraintzeko— kanetara hurbildu zen.

— Gerasim —esan zuen ahulki Ivan Ilitxek.

Gerasimek dardara egin zuen, zerbaitetan huts egin zuelakoan, eta zirkin bizkor batez itzuli zuen gaixoarengana ordurako bizarra irteten hasia zeukan bere aurpegi gordin, zintzo, jator gaztea.

— Zer nahi duzu?

— Hau, uste diat, higuigarri izango zaiala. Barkaidak. Ezin diat.

— Baita zera ere—. Eta Gerasirnek begiez izarniatu eta bere hortz zuri gazteak erakutsi zizkion. —Zergatik ez dut egingo, bada? Gaixo zaude.

Eta esku zalu eta sendoez burutu zuen ohizko egitekoa eta urrats arinekin aldendu zen. Eta bost minutu geroago, berriz ere urrats arinekin, itzuli egin zen.

Ivan Ilitxek oraindik ere besaulkian eserita jarraitzen zuen.

— Gerasim —esan zuen hark kaneta garbi, ikuzia ezartzean— mesedez, lagunidak, hator hona. —Gerasim hurbildu egin zitzaion—.Jaso nazak. Neuk bakarrik ezin diat, eta dagoeneko bidalia diat Dmitri.

Gerasim hurbildu egin zitzaion; esku indartsuez, urrats arinak ematen zituen bezala, heldu, trebeki, bigunki jaso eta eutsi egin zion, beste eskuaz frakak goratzen zizkion bitartean eta eserarazi egin nahi izan zuen. Baina Ivan Ilitxek eskatu zion dibanera eramateko. Gerasimek, indarrik egin gabe eta sakatu ere egingo ez balu bezala, ia airean dibanera eraman eta eserarazi egin zuen.

— Eskerrik asko. Bai trebeki, bai ederki... egi-ten duala dena.

Gerasimek berriro irribarre egin eta alde egin nahi izan zuen. Baina Ivan Ilitx hain ongi sentitzen zen berarekin, non ez baitzuen bidali nahi.

— Hara, hurbilidak, mesedez, aulki hori. Ez, beste hori, oinpera. Hobeto sentitzen nauk, zangoak goian dauzkadanean.

Gerasimek aulkia ekarri, kolperik eman gabe, aldi berean behearen parera eraitsi zuen eta Ivan Ilitxen zangoak aulkiaren gainera jaso zituen; Ivan Ilitxek uste izan zuen hobeki sentitzen zela Gerasimek zangoak jasotzen zizkionean.

— Hobeto sentitzen nauk, zangoak goian dauzkadanean —esan zuen Ivan Ilitxek—. Kuxin hori ere azpian jarridak.

Gerasimek horrela egin zuen. Berriro zangoak jaso eta jarri zizkion. Berriro Ivan Ilitx hobeki sentitu zen, Gerasimek zangoei eusten zienean. Eraitsi zituenean, okerrago sentitzen zela zeritzon.

— Gerasim —esan zion— ba al duk zereginik orain?

— Ez, jauna —esan zuen hiriko jendearen artean jaunekin hitz egiten ikasia zuen Gerasimek.

— Ba al duk oraindik zerbait egiteko?

— Zerbait egiteko? Dena egina daukat, bihar-ko egurra txikitzea izan ezik.

— Edukiko al dizkidak zangoak goian?

— Bai horixe. —Gerasimek jaso zizkion zangoak gora eta Ivan Ilitxek jarrera hartan ez zuela batere minik sentitzen iritzi zion.

— Eta egurra?

— Ez hadi estutu. Denetarako zegok astia.

Ivan Ilitxek esertzeko agindu zion Gerasimi, zangoei eusteko eta berekin hitz egiteko. Eta —gauza bitxia— bazeritzon hobeki sentitzen zela, Gerasimek zangoei eusten zienean.

Aurrerantzean Ivan Ilitxek noizean behin Gerasimi deitzeko ohitura hartu zuen eta zangoei sorbalda gainetan eustera eta berekin hitz egitera behartzen zuen. Gerasimek aisa, gogara egiten zuen hori, Ivan Ilitx samurtzen zuten sotiltasun eta jatortasunez. Beste guztien osasunak, indarrak, bizi-jasak iraindu egiten zuen Ivan Ilitx; Gerasimen indarrak eta bizi-jasak bakarrik ez zuten iraintzen, aitzitik lasaitu egiten zuten.

Gezurra zen Ivan Ilitxen supliziorik handiena —guztiek onarturiko gezurra, gaixo besterik ez zegoela, baina ez zela hilko, eta lasai egotea eta sendagaiak hartzea besterik ez zuela behar, eta orduan dena oso ongi joango zela. Baina berak bazekien, halere, zernahi egiten zutela ere, sufri-

menduak eta heriotza besterik ez zela sortuko. Eta tormentatu egiten zuen gezur horrek, tormentatu egiten zuen denek zekitena eta berak ere bazekiena ez onartu nahi izateak, baizik eta bere egoera ikaragarriaz gezurra esan nahi izateak, bera ere gezur horretan esku hartzera behartuz. Gezurra, bere heriotzaren bezperan burutzen zitzaion gezur hori, bere heriotzaren egintza izugarri eta lazgarria bere bisita, gorrina, bazkariko gaizkata guztien mailan jarri behar zuen gezur hori... ikaragarri tormentagarria zen Ivan Ilitxentzat. Eta —gauza estrainioa— sarritan, trikimailu hura egiten ziotenean, oihuka esateko zorian egoten zitzaien: «Ez gezurrik esan; badakizue badakidala, hiltzen nagoela; gutxienez utzi gezurra esateari». Baina ez zuen inoiz hori egiteko adorerik izan. Hiltzearen egintza izugarri eta beldurgarria, bazekusan, inguratzuten zuten guztiek eragozpen pasakor, nolabaiteko gisagabekeria baten mailan jarria zeukate-la (egongelara sartzean usain txarra lerioken pertsonarekin egingo litzatekeenez), berak bizitza osoan zerbitzatu izan zuen «gisakotasun» horrekiko leialtasunean; bazekusan inor ez

zitzaiola errukitzen, zeren ez baitzuen inork bere egoera ulertu nahi. Gerasimek bakarrik ulertzen zuen bere egoera eta errukitzen zitzaion. Eta horregatik Ivan Ilitx Gerasimekin bakarrik sentitzen zen ongi. Ongi sentitzen zen, batzuetan Gerasimek, gau osotan zehar, zangoei eusten zienean eta lotara joan nahi izaten ez zuenean, esanez: «Ez zaitez kezkatu, Ivan Ilitx, geroago lo egingo dut»; edo supituki, hika hitz egitera pasatuz, gaineratzen zionean: «Gaixo ez bahengo, baina zergatik ez haut zaindu behar?» Gerasim zen gezurrik esaten ez zuen bakarra, denak adierazten zuen bera bakarrik jabetzen zela egoeraz eta ez zuela ezkutatu nahi, eta errukia zion pixkanaka aumatzen ari zen ugazabari. Behin argi eta garbi hitz egin zuen, Ivan Ilitxek lotara bidali zuenean:

— Denok hil behar diagu. Zergatik ez that neke hau hartu behar? —esan zuen lanak ez zuela inola ere nekarazten adieraziz, hain zuzen ere hiltzen zegoen batentzat zelako eta espero zuela norbaitek berari ere egingo ziola garaia iritsitakoan.

Gezur horretaz gainera, edo berorren ondorioz, Ivan Iltxentzat tormentagarriena, berak nahi izango zukeenez, inork berari errukirik ez izatea zen: Ivan Iltxek, zenbait unetan, supizio luzeen ondoren, ezer baino gehiago nahi izaten zuen, norbaitek zen bezala har zezan: haur gaixo bat bezala hartu eta errukia izan ziezaiola. Laztanak egin, musu eman eta berekin negar egitea nahi izaten zuen, haurrak laztantzen eta kontsolatzen diren modura. Bazekien pertsona larria zela, bizar-urduindua eta, eta horregatik ezinezkoa, baina guztiarekin ere, horixe nahi zuen. Eta Gerasimekiko harremanak bazeukan harengana hurbiltzen zuen zerbait, eta horregatik Gerasimekiko harremanak kontsolatu egiten zuen. Ivan Iltxek negar egin nahi izaten zuen, laztandu eta berekin negar egin zezaten nahi izaten zuen; baina iristen zen lagun bat, Xebek eta berak eta negar egin eta laztantzeko eskatu ordez, Ivan Iltxek aurpegi serio, zorrotz eta pentsakorra jartzten zuen eta inertziaz ematen zuen bere iritzia kasazioko erabaki baten esanahiaz eta defendatzen ahalegintzen zen. Bere inguruko eta bere baitako gezur horrek pozoitzen zituen ezerk

baino gehiago Ivan Ilitxen bizitzako azken egu-
nak.

VIII

Goiza zen. Eta hala bazen Gerasim joan eta Piotr lekaioa etorria zelako bakarrik zen, zeinak kandela itzali, gortinari albora eragin eta isil-misilka txukunketa-lanari ekin baitzion. Goiza edo arratsa, ostirala edo igandea —dena berdin, dena gauza bera zitzaion: une batez ere tormen-tatzeari uzten ez zion min sorra, bizia ezinbes-tean baina erabat ez zihoakion kontzientzia; beti hurbiltzen ari zitzaion heriotza ikaragarri eta gorrotagarri hori, errealitate bakar eta beti gezur berori. Zer garrantzi izan zezaketen egunek, asteek eta hilabeteek?

— Nahi al duzu tea zerbitzatzea?

«Ordena behar da, jaunek goizean hartzen baitute tea», pentsatu zuen baina hauxe besterik ez zuen esan:

— Ez.

— Ba al duzu dibanera aldatzeko gogorik?

«Ganbara-gela txukundu beharra dauka; traba egiten diot, zikina, nahaste-borraste bat

naiz», pentsatu zuen baina hauxe besterik ez zuen esan:

— Ez, utz nazak.

Lekaioak lanean jarraitu zuen. Ivan Ilitxek eskua luzatu zion. Piotr zerbitzari hurbildu zitzaion.

— Zer bait nahi al duzu?

— Erlojua.

Piotrek eskumenean zeukan erlojua eman zion.

— Zortzi t'erdiak. Jaiki al dituk?

— Ez, jauna. Vasili Ivanovitx —semea zuen— gimnasia joan da. Praskovia Fiodorovnak iratzar dezagula agindu du zuk bere galdea egiten bazenuen. Nahi al duzu?

— Ez, ez da beharrezko —«Eta te apur bat hartzen badut?» pentsatu zuen—. Hara, ekarri dak tea.

Piotr atera joan zen. Ivan Ilitxek bakarrik gelditzeko beldurra sentitu zuen. «Zer egingo zuen eradukitzeko? Bai, sendagaia».

— Piotr, emadak sendagaia.

«Zergatik ez, oraindik baliteke sendagaiak laguntzea». Koilarakada bat sendagai hartu

zuen. «Ez, ez dit lagunduko. Dena zentzugabea da, engainua», erabaki zuen gustu ezagun eta melenga hura sentitzean, etsipenez. «Ez, ezin dut sinetsi. Baina oinaze hau, zertako oinaze hau? Une batez atertuko balitzait behintzat!» Eta intziri egin zuen. Piotr itzuli egin zen.

— Ez, hoa. Ekardak tea.

Piotrek alde egin zuen. Ivan Ilitxek, bere burua bakarrik ikustean, intziri egin zuen, ez hainbeste oinazez, ikaragarria bazuen ere, larri-duraz baizik. «Beti gauza bera, beti gau eta egun amaigabe hauek. Laster etorriko balitz... Zer laster? Heriotza, ilunpea. Ez, ez. Edozer heriotza baino lehen!»

Piotr tea bandejan zuela itzultzean, Ivan Ilitxek luzaroan begiratu zion begi galduez, nor zen eta zer nahi zuen ulertzeke. Piotr txunditu egin zen begirada harekin. Eta Piotr txunditzean, Ivan Ilitx bere baitara itzuli zen.

— Bai —esan zuen—, tea... Ongi zegok, uztak. Aurrena lagunidak garbitzen eta emadak alkandora garbia.

Ivan Ilitx garbitzen hasi zen. Ikuzi zituen patxadaz eskuak eta aurpegia, garbitu zituen

hortzak, orraztu eta ispilura begiratu zuen. Ikara sentitu zuen; aparteko ikara sentitu zuen, batez ere ilea bekoki zurbilari itsatsirik nola gelditzen zitzaion ikustean.

Alkandora aldatu ziotenean, bazekien beldurra areagotu egingo zitzaiola bere gorputzari begiratzuz gero, eta ez zion so egin. Baina dena amaitu zen azkenean. Jantzi zuen bata, estali zituen zangoak burusiaz eta eseri zen besaulkian tea hartzeko. Minutu batez susperturik sentitu zen, baina tea edaten hasi orduko, berriro gustu bera, oinaze bera. Kostata edan eta zangoak luzatuz, etzan egin zen. Etzan eta Piotr bidali zuen.

Beti gauza bera. Dir-dir egiten du itxaropen-tanta bat, asaldatzen da etsipenaren itsasoa, eta beti oinazea, beti oinazea, beti larridura, beti gauza bera. Bakarra izugarri triste sentitzen da, norbaiti dei egin nahi izaten dio, baina aurretiaz badaki beste batzuekin oraindik okerrago sentituko dela. «Berriro morfina emango balidate, lo egingo nuke. Zera esango diot medikuari, zer-bait asmatzeko. Hau ezina da, ezina da honela».

Ordua joan eta ordua etorri. Baina txilin-hotsa entzuten da hargelan. Hain zuzen, medikuak da, bizkor, adoretu, guri, alai. «Seguru aski zer bait gaizki egin duzue, baina oraintxe konponduko dugu» esan nahizko aurpegierarekin. Medikuek badaki esamolde hau ez dela egokia hemen, baina hain dago hartara ohitua, non ezin baitu utzi, goizetik fraka jantzi eta bisitak egiten ibili denak bezala.

Medikuek adoretu, kontsolatzaile, eskuak igurzten ditu.

— Hoztuta nago. Sekulako hotza egiten du. Utzidazue berotzen— dio berotzeko apur batez itxarotea aski balitz bezalako aurpegierarekin, eta berotutakoan, dena konponduko balu bezala.

— Eta, zer moduz?

Ivan Ilitxek sentitzen du medikuek galdetu nahi diola: «Zer moduz gauzak?», baina sentitzen du ezina dela horrela hitz egitea eta esaten du: «Nola eman duzu gaua?»

Ivan Ilitxek galdera egiteko aurpegieraz begiratzen dio medikuari «Ez al dizu inoiz lotsarik

emango horrela hitz egitearengatik?» Baina medikuak ez du galdera ulertu nahi.

Eta Ivan Iltxek badio:

— Beti bezala, izugarria da. Oinazeak ez du alde egiten, ez du amore ematen. Zerbait eman-go balit!

— Bai, hara, gaixoak beti berdinak. Tira, berotu naizela, nik uste, ezta Praskovia Fiodorov-na guperak berak ere ez luke ezer izango nire tenperaturaren kontra. Tira, egun on! —Eta medikuak eskua estutzen dio.

Eta aurreko jostaritasun guztia alde batera utzirik, medikua aurpegi serioaz gaixoa miatzen hasten da, pultsua, tenperatura, ukalditxoak eta auskultazioak hasten dira.

Ivan Iltxek badaki era irmo eta seguruan guzti hori gezurra eta engainu hutsa besterik ez dela, baina medikua belaunen gainean jarrita, gainean hedatzen zaionean, belarria gorago, eta beherago hurbilduz, eta gainean aurpegi esanguratsuarekin zenbait itzulinguru gimnasiazko burutzen dizkionean, Ivan Iltx menpean erortzen zaio, behiala abokatuen hitzaldien menpean erortzen zen bezala, nahiz eta oso ongi

jakin denak gezurretan ari zirela eta zergatik ari ziren ere bai.

Medikuak, dibanean belauniko, bere takada-txoekin jarraitzen zuen, atean Praskovia Fiodorovnaren zetazko soinekoaren zurruburrua entzun zenean eta gero Piotri ahakar egin zion medikuaren etorreraren berri eman ez ziolako.

Sartzen da, ematen dio musu senarrari eta berehalaxe hasten da segurtatzen luzaroan dagoela jaikita eta gaizki-ulertze batengatik ez zegoela han medikua etortzean.

Ivan Ilitxek begiratu egiten dio, miatzen du burutik oinetaraino, eta zurtasuna aurpegiratzten dio, esku eta lepoaren garbitasuna eta leuntasuna, ilearen distira eta biziz beteriko begien leinurua. Hunkipenak sufrimendua, gorrotozko olatu bat sortzen dio.

Harekiko eta gaixotasunarekiko bere harremanak berdin jarraitzen du. Gaixoarekiko jarrera bat hartu eta hura albora ezin dezakeen medikuak bezala, emazteak halaxe hartu du jarrera jakin bat Ivan Ilitxekiko (ez du egiten egin behar-ko lukeena, bera da erruduna eta amultsuki aur-

pegiratzeko dio hori) eta berarekiko jarrera hori ezin du aldatu.

— Ez du jaramonik egiten! Ez ditu sendagaiak bere garaian hartzen. Eta batez ere etzanda egoten deneko posizioak, ziur aski, kalte egin behar dio: zangoak goian dituela egoten baita.

Eta Gerasim zangoei goian eustera nola behartzen zuen kontatu zuen.

Medikuak irribarre egin zuen destainati eta maitekor: «Zer egingo diogu bada? Gaixoek batzuetan horrelako tentelkeriak asmatzen dituzte; baina barka litezke.»

Miaketa amaitzean, medikuak erlojuari begiratu zion eta Praskovia Fiodorovnak iragarri zion Ivan Ilitxi, berak nahi ez bazuen ere, mediku sonatuari dei egin ziola, eta Mikhail Danilovitxekin batera (hala zuen izena oheburuko medikuak) miatu eta aztertuko zuela.

— Mesedez, ez zaitez kontra jarri. Neure buruarengatik egiten dut —esan zuen ironiati, dena bere alde egiten zuela eta trikimailu harekin uko egiteko eskubidea kentzen ziola. Berak isildu eta bekokia zimurtu zuen. Inguratzen zuen

gezurra hainbeste trinkotu zela sentitzen zuen, non zaila gertatzen zitzaion ezer ulertzea.

Ivan Ilitxentzako zen guztia bere buruarentzat egiten zuen, eta esaten zion bere buruarentzat egiten zituela hain gauza sinestezinak, non berak alderantzitara aditu behar zituen.

Izan ere, hamaika t'erdietan mediku sonatua iritsi zen. Berriro hasi tiren auskultazioak eta elkarrizketa serioak haren aurrean eta alboko gela batean, giltzurrinaz eta heste itsuaz, eta galde-erantzunak, hain itxura serioarekin, non berriro ere bizitza eta heriotzari buruzko arazo errealaren ordeztze, zeina baitzen Ivan Ilitxi interesatzen zitzaion bakarra, giltzurrina eta heste itsuari buruzko arazoa planteatzen zitzaion, zeinak ez baitziren behar bezala portatzen eta horregatik Mikhail Danilovitxen eta sonatuaren menpean eroriko baitziren, konpontzera behar-turik.

Mediku sonatuak itxura serioarekin alde egin zuen, baina ez itxaropenik gabe. Ivan Ilitxek begiak beldurrez eta itxaropenez dirdirka gora jasoak zituela, ea osatzeko ahalbiderik ba ote zegoen egindako galdera ez baitiari, ez zegoela

segurtatzerik erantzun zion baina bazegoela ahalbiderik. Ivan Ilitxek medikuari adio esan zioneko itxaropen-begirada hain zen tamalgarria, non Praskovia Fiodorovna hura ikustean negarez hasi baitzen, mediku sonatuari alogera ordaintzeko despatxutik irtenik.

Medikuaren itxarobideak sorturiko gogo-jasaldiak ez zuen luzaroan iraun. Berriro lehengo gela, koadro eta gortina berak, hormetako paper bera, poto berak eta lehengo gorputz oinazetu eta mindu berbera. Ivan Ilitx intzirika hasi zen—; jarri zioten injekzioa eta lozorrotu egin zen.

Bere baitara etorri zenean, ilunabartzen hasita zegoen. Jatekoa ekarri zioten. Kostata salda hartu zuen eta berriro gauza bera, berriro gaua hasi zen.

Bazkal ondoan, zazpietan, Praskovia Fiodorovna sartu zen gelara, bigira baterako bezala jantzita, bular lodi jasoekin eta hauts-arrastoak aurpegian zituela. Jadanik goizean gogoratua zion teatrora joatekoak zirela. Sarah Bernhardt zegoen hirian eta bazuten palko bat berak behin eta berriz erreserbatzeko eskatu zuena. Ivan Ilitxek ahazturik zeukan, eta haren soineko doto-

reak haserretu egin zuen. Baina disimulatu egin zuen haserrea, bera izan baitzen palkoa hartzen ahalegindu zena, seme-alabentzat atsegin hezitzaile eta estetikoa omen zelako.

Praskovia Fiodorovna bere buruarekin asebetarik sartu zen, baina erruduna bailitzan. Eseri zen eta osasunaz galdetu zion; eta Ivan Ilitxek ikusi zuen galdetze aldera galdetu ziola, baina ez ezer jakiteko, bai baitzekien, ezin zuela ezer jakin, eta emazteak zeren premia sentitzen zuen esateari ekin zion: ezergatik ere ez zatekeela joango, baina palkoa hartuta zegoela, Elen, alaba eta Petrixtxev (alabaren senargaia zen instrukzio-epailea) zihoazela, eta horregatik ezina zela haiek bakarrik uztea. Askozaz atseginagoa gertatuko zitzaiokeela berarekin gelditzea, baina bera falta zen bitartean medikuak agindutakoa egin behar zuela.

— Bai, Fiodor Petrovitxek (senargaiak) ere sartu nahi zuen. Sar al daiteke? Eta Lisak ere bai.

— Sar daitezela.

Sartu zen alaba, pinpirin jantzita, gorputz gazte biluziarekin, hainbeste sufriarazten zion harekin. Eta erakutsi egiten zuen indartsu, osa-

suntsu, ageri zenez maitemindua eta zoriontasu-
nari kontra egiten zioten gaixotasun, sufrimendu
eta heriotzarekin sumindua.

Sartu zen Piotr Petrovitx frakarekin, à la
Capoul orraztua, lepo luze eta zaintsua gorbata
zuriz loturik, paparreko zuri eskerga eta izter
indartsuak fraka beltz meharretan sarturik,
guante zurizko eskuan egitaraua zeramala.

Haren atzetik, ezkutuka, gimnasio-ikaslea
sartu zen, bere uniforme berriarekin, gizajoa,
guante eta betazpi izugarriekin, zeinen esanahia
bai baitzekien Ivan Ilitxek.

Beti eman izan zion gupida semeak. Eta ika-
ragarria zen haren begirada izutu eta errukarria.
Gerasimez aparte, Ivan Ilitxek uste zuen Vasiak
bakarrik ulertzen eta ziola errukia.

Denek eseri eta osasunaz galdetu zioten. Isi-
lunea gertatu zen. Lisak kataloxak non ziren gal-
detu zion amari eta liskarra sortu zen ama eta
alabaren artean ea nork galdu ote zituen. Ez zen
atsegina izan.

Fiodor Petrovitxek galdetu zion Ivan Ilitxi ea
ikusia zeukan Sarah Bernhardt. Ivan Ilitxek
hasieran ez zion galdera ulertu; gero esan zuen:

— Ez, eta zuk?

— Bai, *Adrienne Lecouvreur*-en.

Praskovia Fiodorovnak esan zuen aktorea bereziki ona zela halako zer baitetan. Alaba ez zen iritzi berekoa. Hizketaldi bat hasi zuten interpretazioaren dotoretasun eta errealtasunaz: beti ateratzen den betiko hizketa.

Hizketaldiaren bizienean, Fiodor Petrovitx Ivan Iltxi begiratu eta isilik geratu zen. Besteak ere begiratu eta isildu egin ziren. Ivan Iltxek begi distiratsuekin begiratzen zuen, ageri zenez haietaz gogaiturik. Egoera hartatik irten beharra zegoen, baina ez zen bat ere erraza. Isiltasun hura nolanahi ere eten beharra zegoen. Ez zen inor ausartzen, eta denei ikaragarria gertatzen zitzaien, bat-batean gezur errukiorra deuseztatu eta zer gertatzen ari zen argi eta garbi ikusiko zutelakoa. Lisa izan zen erabakitzen aurrena. Denek sentitzen zutena ezkutatu egin nahi zuen baina esan zuen:

— Halere, joan egin behar da, ordua da — esan zuen aitaren oparia zen erlojuari begira, eta berak bakarrik ulertzen zuen irribarre ia haute-manezin baina esanguratsu bat mutil gazteari

zuzentzen zion bitartean, zutitu egin zen soinekoari zurruburua ateraz.

Denak zutitu, elkarri agur esan eta joan egin ziren.

Irten zirenean, hobeki zegoela iruditu zitzaion Ivan Ilitxi: gezurra ez zegoen han, beraiekin alde egina zen baina oinazea gelditu zen. Betiko oinazeak eta betiko beldurrak ezer ez txarragoa eta ez hobeia izatea egiten zuten. Dena ezin txarragoa zen.

Berriro minutuak minutuen atzetik igaro ziren, ordu bat beste ordu baten atzetik, beti gauza bera, beti azkenik gabe, eta gero azken ikaragarri ezinbestekoa.

— Bai, datorrela Gerasim —erantzun zion Piotren galderari.

IX

Gauean berandu itzuli zen emaztea. Oin-puntetan sartu zen, baina Ivan Ilitxek entzun egin zuen; ireki begiak eta bizkor itxi zituen berriro. Emazteak irtenarazi egin nahi zuen Gerasim eta beratekin gelditu, baina Ivan Ilitxek begiak ireki eta esan zuen:

- Ez. Zoaz.
- Min handia al duzu?
- Berdin dio.
- Har ezazu opioa.

Ados zegoen eta edan egin zuen. Emazteak alde egin zuen.

Hirurak arte lozorro tormentagarri batean egon zen. Bazeritzon zaku mehar beltz batean, oso sakon, sartzen zutela, baina ezin zutela barruraino sartu. Eta ikaragarria zitzaion egintza honek sufriarazi egiten zion. Ikaratan zegoen, ez zuen hara erori nahi, kontra egin, laguntza eskatzeko zuen. Eta supituki zakua lehertu, erori eta bere senera etorri zen. Bitartean Gerasim ohearen oinetan eserita, erdi lo zegoen patxadaz,

egonarriaz. Ivan Ilitx etzanda zegoen, galtzerdie-tan sarturiko zango argalduak haren sorbaldetan zituela; eta betiko kriseilua zegoen bere pantaila eta guzti, eta inoiz atertzen ez zen oinaze bera.

— Hoa, Gerasim —marmar egin zuen.

— Ez dio axola, hemen segituko dut.

— Ez, hoa.

Kendu zituen zangoak, etzan zen albokara, besoaren gainean eta bere buruari errukia izan zion. Gerasim alboko gelara irten arte itxaron zuen eta ezin izan zion gehiago eutsi eta haur batek bezala eman zion negarrari. Bere ezintasunarengatik, bere bakardade ikaragarriarengatik, jendearen krudelkeriarengatik, Jainkoaren krudelkeriarengatik, Jainkoaren absentsiarengatik egiten zuen negar.

«Zergatik egin duzu hori? Zergatik ekarri nauzu hona? Zer dela-eta, zer dela-eta tormentatzen nauzu hain ikaragarriro...?»

Ez zuen erantzunik espero eta negar egiten zuen erantzunik ez zegoelako eta egon ezin zitekeelako. Oinazea areagotu egin zitzaion, baina berak ez zuen zirkinik egin, ez zion inori dei egin. Bere golkorako esan zuen: «Tira, emaiok gehia-

go! Baina zer dela-eta? Baina zer egin diat nik? Zer gero?»

Gero baretu eta negar egiteari ez ezik, arnasa hartzeari ere utzi egin zion; eta dena aditasun bihurtu zen: bazirudien soinutan aditzera emandako mintzo bat ez, baizik eta arimaren mintzoa entzuten zuela, bertan sortzen ziren pentsamendueen joaira.

— Zer behar duk? —izan zen entzundako lehen kontzeptu argia, hitzen bitartez aditzera eman zitekeena. — Zer behar duk? Zeren beharra duk? —errepikatu zuen bere barrurako—. Zerena? — Ez sufritzearena. Bizitzearena —erantzun zuen.

Eta berriro halako aditasun tenkatu batean, oinazeak berak ere ezin ezabatuzko batean, murgildu zen.

— Bizi? Nola bizi? —galdetu zuen arimako mintzoak.

— Bai, lehen bizi nintzen bezala bizi: ongi, atsegin.

— Nola bizi hintzen lehen, ongi eta atsegin? —galdetu zion mintzoak. Eta bere bizitza atsegineko unerik hoberenak irudimenak birpasatzeari

ekin zion. Baina —gauza bitxia— baina bizitza atsegineko une hoberen haiei orduko ez zeharo bestelako zeritzen orain. Guztiei, haurtzaroko lehen oroitzapenei izan ezik. Han, haurtzaroan, bazegoen zerbait atsegina, itzuliz gero, bizi zitekeena. Baina atsegin hura hauteman zuen pertsona falta zen orain: beste norbaiten oroitzapena bezalako zerbait zen.

Oraingo ondorioa zen hura hasten zenean, Ivan Ilitxi orduko poz guzti haiek begietatik lausotzen zitzaizkiola eta zerbait funsgabe eta sarritan nazkagarri bihurtzen.

Eta zenbat eta aldentzenago zen haurtzarotik eta hurbiltzenago presentera, hainbat eta funsgabeagoak eta badaezpadakoagoak zitzaizkion pozak. Hori Zuzenbide Eskolan hasten zen. Han oraindik zerbait benetan ona bazegoen: alaitasuna zegoen, adiskidetasuna zegoen, itxaropenak zeuden. Baina goiko klaseetan bakanagoak ziren une on horiek. Gero, gobernadorearekiko bere lehen karguko urteetan, berriro agertzen ziren une onak: emazteari zion maitasun-oroitzapenak ziren. Gero guzti hori nahastu egiten zen eta ona gero eta bakanagoa zen. Eta zenbat eta aurrera-

go, hainbat eta on gutxiago, eta aurrerago, gutxiago.

Ezteia... bat-bateko deslilura, emaztearen ahoko usaina, zentzukoitasuna, itxurakeria. Eta kargu hil hura, eta diruarengatiko kezka haiek, eta horrela urtebete, bi urte, hamar, hogeietan beti gauza bera. Eta zenbat eta aurrerago, hainbat eta hilago. «Etengabe maldan beherantz nindoan, gorantz nindoalakoan. Hala izan zen. Jendearen iritzian gorantz nindoan, eta bizitza oinpetik alde egiten ari zitzaidan...Eta orain prest nago, hil nadin!»

«Zer esan nahi du honek? Zertako? Ezina da. Ezina da bizitza hain zentzugabea eta nazkagarria izatea. Eta hain nazkagarria eta zentzugabea bada, zertako hil eta hil oinazetan? Hemen bada ongi ez dabilen zerbait.»

«Agian ez ote naiz bizi izan behar nuen bezala? —eman zion buruak bat-batean. «Baina nola izan liteke hori, dena behar bezala egin nuelarik?» —esan zuen bere golkorako eta bat-batean errefusatu zuen bizitza eta heriotzaren enigma osoaren soluzio bakarra erabat ezinezkotzat bailitzan.»

«Zer nahi duzu orain? Bizi? Nola bizi? Epaitegian bizi zaren bezala bizi, ujierrak iragartzen duenean: «Auzi-mahaikoak sartzen ari dira!...» «Auzi-mahaikoak sartzen ari dira, auzi-mahaikoak sartzen ari dira, auzi-mahaikoak sartzen ari dira!» errepikatu zion bere buruari. —Horra auzi-mahaia! Baina ni ez naiz errudun! —oihu egin zuen suminez. «Zergatik?» Eta negar egiteari utzi zion, hormari aurpegia eman eta gauza berean pentsatzen hasi zen: zergatik, zertako izudura guzti hori?»

Baina behin eta berriz pentsatu bazuen ere, ez zuen erantzunik aurkitu. Eta sarritan guzti hori behar bezala bizi izan ez zelako gertatzen zitzaiola bururatzean, bere bizitzaren zuzentasuna gogoratu eta ideia estrainio hura baztertu egiten zuen.

X

Beste bi aste igaro ziren. Ivan Ilitx ez zen dibanetik jaikitzen. Ez zuen ohean egon nahi eta dibanean egoten zen. Eta ia denbora guztian aurpegia hormara zuela, bakarrean sufritzen zuen bere oinaze atergabea eta bakarrean pentsatzen arazo atergabe berean. «Zer da hau? Benetan ote da gero heriotza?» Eta barne-mintzo batek esaten zion: «Bai. Egia da.» «Zertako sufrimendu hau?» Eta mintzoak erantzuten zuen: «Ezertako ez». Hemendik aurrera eta honezaz aparte ez zegoen besterik.

Gaixotasunaren hasieratik beretik, Ivan Ilitx medikuarengana lehen aldiz joan zenetik, bizitza bata bestearekin txandaka zebiltzan bi aldarte kontrajarritan urratu zitzaion: bata etsipena eta heriotza ulergaitz eta ikaragarria zen, edo bere gorputzaren jarduerarengatikoi interesez gainez-katuriko behaketa eta itxaropena. Edo begien aurrean giltzurrina edo hestea agertzen zitzaion, zeinak ordukoz uko egiten baitzion bere eginbe-

harrak betetzeari, edo heriotza ulergaitz ikaragarria zen, inola ere ihes egiterik ez zegoena.

Bi aldarte horiek gaixotasunaren hasietatik beretik txandaka zebiltzan bata bestearekin; baina zenbat eta gaixotasuna aurrerago zihoan, hainbat badaezpadakoago eta fantasiazkoagoak bihurtzen zitzaizkion giltzurriari buruzko gogoe-tak eta askoz errealagoa ari zen hurbiltzen herio-tzaren kontzientzia.

Aski zuen gogora ekartzea zer zen hiru urte lehenago eta zer orain; nola joan zen maldan beherantz itxarobide oro suntsiturik geratzeko.

Bakardade haren azken aldian, non aurkitzen baitzen aurpegia dibanaren bizkarrerantz zuela, hiri jendetsu bateko bakardade harenean, bere adiskide ugarien eta familiaren baitan—: ez itsa-soaren hondarrean, ez lehorrean, inon egon lite-keen baino bakardade handiagoan, bakardade izugarri haren azken aldian, Ivan Ilitx irudimenez iraganean baizik ez zen bizi. Bata bestearen atzetik iraganeko koadroak sortzen zitzaizkion. Beti garai hurbilenetatik hasi eta urruneko eneta-ra, haurtzarora joan eta bertan gelditzen zen. Baldin eta Ivan Ilitxek arestian emandako aran-

konpota gogora ekartzen bazuen, haurtzaroko arn frantses zimurtuak bururatzen zitzaizkion, haien zapore berezia eta hezurrera iristean jaria-razten zuten listu ugaria, eta zaporearen oroitzapen horrekin batera garai hartako oroitzapen sail osoa sortzen zitzaion: inudea, anaia, jostailuak. «Hori ez... mingarriegia da», zioen bere baitarako Ivan Iltxek eta berriro presentera etortzen zen. Dibanaren bizkarreko botoia eta larruaren zimurak. «Larruki garestia da, baina mengela; eztabaida izan genuen horregatik. Baina beste larruki bat eta beste eztabaida bat izan zen, aitarren kartera hondatu eta zigortu gintuztenean, eta amak pasteltxoak ekarri zizkigun». Eta berriro haurtzaroan gelditzen zen, eta berriro Ivan Iltxek min hartzen zuen eta aldendu eta beste zer-bait pentsatzen ahalegintzen zen.

Eta berriro, bere oroitzapenen joaira horrekin batera, ariman beste oroitzapen batzuen joaira gertatzen zitzaion: gaixotasuna nola indartu eta areagotu zitzaion. Edo berdin zena: zenbat eta gehiago urrundu hainbat eta bizi gehiago zegoen. Hainbat eta on gehiago zeukan bizitzak, eta hainbat eta bizi gehiago zeukan berak ere. Bata

eta bestea nahastu egiten ziren. «Zenbat eta oinazea txarrago, bizitza osoa ere hainbat txarrago bihurtu da», pentsatzen zuen. Puntu argitsu bakar bat zegoen han, atzean, bizitzaren hasieran, eta gero dena beltzagoa eta beltzagoa, eta bizkorragoa eta bizkorragoa zen. «Heriotzarekiko distantzia berbituen alderantzizko proportzioan», pentsatzen zuen Ivan Ilitxek. Eta harriaren irudi hori, gero eta abiadura handiagoan goitik behera etortzen ari zenarena, ariman sartzen zitzaion. Bizitzak, gero eta handiagoak diren oinazeen sortak, hainbat eta bizkorrago hegaz egiten du amaierara, oinazerik ikaragarrienera hurbildu ahala. «Airean noa...» Dardara egiten zuen, inarrosi egiten zen, kontra egin nahi zuen; baina bazekien ezina zela kontra egitea, eta berriro begiratzez nekaturik zeuden baina aurrean zeukatena begiratzeari utzi ezin zioten begiez, dibanaren bizkarrari begiratu eta itxaron egiten zion, itxaron eroriko ikaragarriari, zartakoa eta deuseztapenari. «Ezina da kontra egitea —zioen bere baitan—. Gutxienez ulertuko banu zertako den guzti hori? Eta hori ere ezina da. Azaldu liteke behar bezala ez naizela bizi izan

esaterik balego. Baina hori ez dago onartzerik», zioen bere baitan, bere bizitzako lege, arau eta kunplimendu guztiak gogora ekarriz. «Hori uste izatea ezinezkoa da» —zioen bere baitan, ezpainez irribarre eginez, norbaitek irribarrea ikusi eta hartaz engainatuko balitz bezala. «Ez dago azalpenik! Oinazeak, heriotza... Zertako?»

XI

Honela igaro ziren bi aste. Aste horietan jazo zen Ivan Ilitxek eta emazteak desiratutako gertakaria: Petrixtxevek formaiki egin zuen ezkontzeko eskaria. Hori arratsean gertatu zen. Biharamunean Praskovia Fiodorovna senarraren gelan sartu zen, Fiodor Petrovitxek egindako eskariaren berri nola emango zion pentsatuz, baina gau hartan bertan Ivan Ilitxek aldaketa berri bat egin zuen okerragora. Praskovia Fiodorovnak betiko dibanean aurkitu zuen, baina posizio berrian. Aratinik zegoen, intzirika eta begirada finkoaz begiratzen zuen aurrealdera.

Emaztea sendagaiez hitz egiten hasi zitzaion. Ivan Ilitxek begirada berarengana saihestu zuen. Emazteak ez zuen hasitakoa amaitu, halako amorrua adierazten baitzion begirada hark.

— Ala Kristo, utz nazazu lasai hiltzen —esan zion.

Emazteak alde egin nahi izan zuen, baina une hartan alaba sartu eta agurtzera hurbildu zitzaion. Ivan Ilitxek alabari emazteari bezala

begiratu zion eta osasunaz egin zizkion galderei lehor erantzun zion esanez laster libratuko zituela denak bere buruagandik. Biek isildu, eserita egon eta alde egin zuten.

— Zertan gara errudun gu biok? —esan zion Lisak amari—. Geuk egin izan bagenio bezala. Tamalgarri zait aitarena baina zergatik tormentatzen gaitu?

Ohizko orduan medikua etorri zen. Ivan Ili-txek «bai, ez» erantzuten zion, begirada herra-tsua harengandik apartatu gabe eta azkenean esan zuen:

— Badakizu ezin duzuela ezer egin, utz nazu-
zu beraz.

— Oinazea arindu dezakegu —esan zuen medikuak.

— Hori ere ezin duzue: utz nazazu.

Medikuak irten egongelara eta azaldu zion Praskovia Fiodorovnari oso gaizki zegoela eta baliabide bakarra zeukala ikaragarriak bide ziren oinazeak arintzeko: opioa.

Medikuak esan zuen min fisiko ikaragarriak zituela, eta hori egia zela; baina min fisikoak

baino askoz ikaragarriagoak zituela min moralak, eta hori zuela tormenturik larriena.

Gau hartako tormentu moralak Gerasimen aurpegi loguratsu, onbera eta masail-irtenari begiratzean: «Izan ere, nire bizitza, nire bizitza kontziente osoa, «*beste zerbait*» izan da» supituki bururatzeak sortu zizkion.

Lehen erabat ezinezkotzat zeukana eman zion buruak, agian bere bizitza behar ez zuen bezala pasatu zuelakoa egia izan zitekeela. Buruak eman zion ozta-ozta hautemangarriak ziren nahikundeen aurkako borroka, goren kokaturiko pertsonak egokitzen zeukatena, beregandik berehalakoan aldentzen zituen ozta-ozta hautemangarriak ziren nahikundeak —horiek benetakoak izan zitezkeela, eta gainerakoa bazitekeela ez izatea. Kargua, bizitza antolatzeke era, familia eta gizartea eta karguaren interes haiek, guzti hori bazitekeen beste zerbait izatea. Guzti hori bere buruaren aurrean defendatzen ahalegindu zen. Eta supituki defendatzen ari zenaren ahulezia guztiaz jabetu zen. Eta ez zegoen zer defendaturik.

«Hori horrela bada —esan zuen bere baitarako— eta eman zaidan guztia deuseztatu dudan kontzientziarekin baldin banoa bizitzatik, eta konpontzerik ez badago, orduan zer?» Aratinik etzan eta bere bizitza osoa birpasatzeari ekin zion. Goizean lekaioa ikusi zuenean, gero emaztea, gero alaba, gero medikua, bere zirkin bakoitzak, bere hitz bakoitzak gauez aurkitu zuen eta beretzat egia ikaragarria zen hura berresten zuen. Haiengan bere burua ikusten zuen, bizi izandako guztia, eta argi ikusten zuen guzti hori «beste zerbait» zela, guzti hori engainu ikaragarri handi bat izan zela, bizitza eta heriotza ikusten uzten ez zuena. Kontzientzia horrek areagotu, hamar halakotu egiten zizkion min fisikoak. Intziri egin eta inarrosi eta arropak erantzi nahi zituen. Ito eta zanpatu egiten zutela iruditzen zitzaion. Eta horregatik ezinikusia zien besteei.

Opio-dosi handi bat eman zioten eta erdi-lotan geratu zen; baina bazkalorduan berriro ekin zion. Guztiak beregandik bidali eta atergabe lekuz aldatzen hasi zen.

Emazteak etorri eta esan zion:

—Jean, laztana, egizu niregatik (niregatik?). Honek ez dizu kalterik egingo, eta sarritan lagundu egiten du. Hau, hutsa da. Eta osasuna sarritan...

Begiak zabal ireki zituen.

— Zer? Jaunartu? Zertako? Ez dago premia-rik! Baina bestalde...

Emazteak negarrari eman zion:

— Bai, ene adiskidea? Apaizari deituko diot, hain da begikoa...

Apaiza etorri eta aitortu zenean, samurtu egin zen, zalantzak arindu egin zitzaizkiola sentitu zuen eta ondorioz baita oinazeak ere, eta horretan une bateko itxaropena aurkitu zuen. Berriro heste itsuan eta hura konpontzeko ahalbidean pentsatzeari ekin zion. Begiak malkoturik jaunartu zuen.

Jaunartzearen ondoren, oheratu zutenean, une batez lasai egon zen, eta berriro sortu zitzaion bizi-itxaropena. Proposatzen zioten eba-kuntzan pentsatzen hasi zen. «Bizi egin nahi dut, bizi» —esaten zuen bere golkorako. Emaztea zorionak ematera etorri zitzaion; ohizko hitzak esan eta gehitu zion:

— Ez al zara hobeto sentitzen?

Ivan Ilitxek, begiratzeko, baietz esan zion.

Emaztearen soinekoak, haren sozkoak, aurpegiaren adierazpenak, mintzoaren soinuak, denak gauza bakarra esaten zioten: «Beste zer-bait duk. Hire bizitza izan den eta oraindik den hori, gezurra, engainua duk, bizitza eta heriotza estaltzen dizkik» Eta pentsatze hutsarekin gorrotoa sortu zitzaion eta gorrotoarekin batera oina-ze fisiko mingarriak eta oinazeekin hondamendi hurbil eta ezinbestekoaren kontzientzia. Zerbait berria gertatu zen: bihurritzen, hotsak ateratzen eta hatsanka hasi zen.

«Bai» esatean zeukan aurpegiera ikaragarria zen. Emaztearen aurpegiari begira, «Bai» hori esatean, zeukan ahultasunerako bizkortasun harrigarritz itzuli eta oihu egin zuen:

— Zoazte, zoazte, utz nazazue!

XII

Une horretan hasi zen hiru egunez atertu ez zen garrasi hura, hain ikaragarria, non ezinezkoa baitzen bi gela harantzagotik ere ikaratu gabe entzutea. Emazteari erantzuten ari zen unean ulertu zuen, galdua zela, ez zegoela itzulerarik, azkena iritsia zela, azken erabatekoa, eta zalantza oraindik uxatu gabe zegoela eta zalantzak iraun egiten zuela.

— Ut! Ut! Ut! —oihu egiten zuen intonazio ezberdinetan. Oihuka ekin zion: «Ez dut nahi!» eta hala jarraitzen zuen «i» azken hotsa luzatuz.

Hiru egun horietan, zeinetan berarentzat ez baitzegoen denborarik, zarramaltzatu egiten zen indar ikusezin eta gaindiezin batek sartzen zuen zaku beltz hartan. Borrokatu egiten zen, heriotzara kondenatua borreroaren eskuetan borrokatzen den bezala, ez zela salbatuko jakinaren gainean eta minutu bakoitzean sentitzen zuen, borrokako indar guztia gorabehera, gero eta hurbilago zegoela izutzen zuen hartatik. Bere tormentua zulo beltz horretara burua agertzea zela,

eta oraindik gehiago, bertan ezin sartu izatea zela sentitzen zuen. Bizitza ona izan zuela onartzeak eragozten zion bertan sartzea. Bere bizi-tzaren justifikazio horrek tinkatu egiten zuen eta ez zion aurrera joaten uzten eta ezerk baino gehiago tormentatzen zuen.

Supituki, halako indar batek bultzatu zuen bularraren, saihetsaren kontra, oraindik arnas-keta zailagotuz; erori zen zuloan eta han, zuloa-ren hondoan zerbait argitu zen. Trenbideko bagoi batean joan eta aurrera doala pentsatzen duenaren, baina atzera doala, eta supituki bene-tako norabidea zein den konturatzen denari gertatzen zaion sententzioa izan zuen.

«Bai, dena *“beste zerbait”* zen —esan zuen bere golkorako— baina berdin dio. Baina egin liteke, egin liteke beste *“zerbait”* hori. Zer da *“beste zerbait”* hori? —galdetu zion bere buruari eta supituki bare gelditu zen.»

Hau hirugarren egunaren amaieran zen, hil baino ordubete lehenago. Une horretan bertan gimnasio-ikaslea aitari hurbildu zitzaion isilka. Hiltamukoak atergabe oihuka eta besoei eragiten zien. Haren eskuak mutikoaren buruarekin

tupust egin zuen. Mutikoak hartu, ezpaineratu eta negarrari eman zion.

Une horretan Ivan Iltx erori, ikusi argia eta bizitza ez zuela behar bezalakoa izan aurkitu zuen, baina artean konpon zitekeela. Zer zen «*zerbait*» hura galdetu zion bere buruari eta baretu egin zen adi jarritz. Orduan sentitu zuen norbaitek eskuan musu ematen ziola. Ireki begiak eta semea begiratu zion. Erruki izan zitzaion. Emaztea ondoratu egin zitzaion. Ivan Iltxek begiratu egin zion. Emazteak ahoa zabalik eta sudurrean eta masailean malko xukatu gabeekin, aurpegiera etsiarekin begiratzen zion. Ivan Iltx errukitu egin zitzaion.

«Bai, tormentatu egiten ditut —pentsatu zuen—. Erruki natzaie, baina hobeto sentituko dira hilko naizenean.» Hori esan nahi izan zuen, baina ez zuen indarrik hitz egiteko izan. «Gainera, zertako hitz egin, egin egin behar da» —pentsatu zuen. Begiradaz semea seinalatu emazteari eta esan zion:

— Eramazu... erruki natzaio... zuri ere bai... «Barka» esan nahi izan zuen baina «pasa» esan

zuen eta zuzentzeko indarrik ez zuelarik, eskuaz keinu bat egin zuen, ulertuko ziotelakoan.

Eta supituki argi geratu zitzaion tormenta-tzen mena eta irteten ez zitzaiona, supituki kolpe batean ateratzen zitzaiola, bi aldetatik, hamar aldetatik, alde guztietatik. Erruki zitzaien, zerbait egin beharra zegoen atsekabetu ez zitezen. Bere burua libratzeko eta besteak libratzeko sufrimendu haietatik. «Bai ongi eta bai erraza —pentsatu zuen—. Eta mina? —galdetu zion bere buruari—. Non haiz? Tira, non hago, min?»

Adi jarri zen.

«Bai, hor dago. Berdin dio. Utzi bakean mina».

«Eta heriotza? Non da?»

Heriotzari zion lehengo eta ohizko beldurra-ren bila hasi zen. «Non zegoen? Zer heriotza?» Ez zeukan inolako beldurrik, zeren ez baitzegoen heriotzarik.

Heriotzaren orde z argia zegoen.

— Orain ulertzen dut! —esan zuen bat-batean goraki—. A zer poza!

Guzti hau une batetan gertatu zen beraren-tzat, eta une horren esanahia jadanik ez zen

aldu. Bertan zeudenentzat agonia artean bi orduz luzatu zen. Bularrean zerbaitek gur-gur egiten zion; gorputz aunatua dardaraka zegoen. Ondoren bakanagotu egin ziren gur-gurra eta zurrungak.

— Bukatu da! —esan zuen norbaitek haren gainean.

Ivan Ilitxek hitz hauek entzun eta bere ari-man errepikatu zituen. «Bukatu da heriotza —esan zuen—. Ez dago heriotzarik.»

Hartu arnasa barrura, gelditu erdian, luzatu eta hil egin zen.